

Garalurrek
ikastaro eskaintza
berria egin du



Sakanerria >> 5

Sakanako Bardoak lanera.
Nafarroako taldekako bertso
ekimeneko **saioa gaur, 22:00etan,**
Arbizuko Argibidea elkartean



Kultura >> 15

Sakanan gehiago birziklatzen ari gara

Hiru hondakin bilketa sistema erabilita
pasa den urte akaberan Sakanan gaikako
bilketa %45,49ra igo zen

Legediak %50a markatzen du. Irurtzunen
eta Altsasun gaia landuz gero datua
hobetu egin daiteke

>> 9

Mank-ek D
ereduaren
aldeko
gonbitea
luzatu du

D ereduari matrikula-
tzera animatu ditu
gurasoak

>> 7

Kintoak
Burundan
eta ihoteak
Irañetan

>> 6



Mendi ertaineko kirol-technikaria, zikloko ikasleak eta irakaslea LHko sarreran.

Ikasketa berriak Lanbide Heziketan

>> 5

GUaiXE

Sakanaz sarean

TOKIKOM

Egin zaitez
komunitateko Kide

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA
%20
ra
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Jose Luis
ZORIONAK. Ea maris-kada batera gonbidatzen gaituzun. Urte askotarako. Etxekoak.



June
ZORIONAK June!! Ongi pasa 6 urte betetzen dituzun egun berezi honetan. Muxu handi bat familia guztiaren partez.



June
ZORIONAK June!! Azkenean iritsi da eguna! Ongi pasa familia eta lagunekin, sorgintxo. Ama eta Aitaxoren partez. Muxu erraldoia.



Araitz
ZORIONAK! zure 8. urtebetetzean! Oso ongi pasa ezazula. Asko maite zaitugu. Etxeko guztiak.



Ixa
ZORIONAK Ixa!! Beti bezin alei ta xalxera segi zazu!!! Muxu haundibet fameli guzian partetik!!



Eider Muñoa
Goikoetxea
ZORIONAK pixpirita!! Kontuz ibili bizikleta berriarekin, e!! Muxu asko denon partez.



Ibai
ZORIONAK Ibai! 3 urte! Segi beti bezain salsero, potxolo!!! Etxarri eta Legazpiko familiak, aita, ama eta Mattin.



Irati Aldasoro
ZORIONAK!! Dagoeneko 6 urte bete ditu gure etxeko xaxak. Izugarri maite zaitugu. Etxekoak.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

otsailak

7-13

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Nekez+Kauta. Otsailaren 7an, ostiralean, 23:00etan Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean. **OGA.**

Txarros txilapastrosos. Otsailaren 8an, larunbatean, 19:30ean Olatzagutiko Clinkerren.

Zinema

Hijos de la media noche. Otsailaren 7an, ostiralean, 21:45ean eta otsailaren 2an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Tres bodas de más. Otsailaren 7an, ostiralean, 22:00etan eta otsailaren 9an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Jelly T, Tarzan eskasa. Otsailaren 9an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Txirrindula irteerak

Sakana. Otsailaren 9an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 50 km. **Burundako mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Oleos. Otsailaren 14ra arte Urdiaingo

Kaluxa tabernan. **Patricia Paats.**

Orainetik iragana eta geroa eraikitzen. Otsailaren 16ra arte Altsasuko lortia kultur gunean. **Helena Santano Cid.**

Bertsolaritza

Harrapazank eta Bizkorratxiko. Otsailaren 7an, ostiralean, 22:00etan Arbizuko Argibidea elkartearen. **Bardoak 2014.**

Hitzaldiak

Noia lagundu etxeko lanekin euskaraz ez badakigu? Otsailaren 7an, ostiralean, 15:30ean, Irurtzongo Atakondoa ikastetxean. Euskaraz ez dakiten gurasoendako. **Sakanako Mankomunitatea.**

Gaztainondoak: zer egin dezakegu? Otsailaren 7an, ostiralean, 18:30ean Bakaikuko udaletxean.

Tailerrak

Zumba. Otsailaren 12an, asteazkenean, 18:00etan Altsasuko Intxotiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Guraso eskola. Otsailaren 7an,



ostiralean, 15:00etan Altsasuko ludotekan.

Zorri azoka, merkatu soziala. Otsailaren 7an, ostiralean, 17:00etatik 21:00etara Etxarri Aranzko estalopean.

Gaztainondoak: zer egin dezakegu? Otsailaren 7an, ostiralean, 18:30ean Bakaikuko udaletxean. **Mahaingurua.**

Eskubide sozialak, bizitzaren mantentzea (osasuna, hezkuntza, etxebizitza). Otsailaren 13an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranzko kultur etxean. **Euskal Herriko eskubide sozialen karta.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Otsailaren 7an, ostiralean, 20:00etan Irurtzongo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranzko plazetan, elkarretaratzeak. Otsailaren 9an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Otsailaren 11n, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,
Ikasketa berriak LH institutuan, hondakin
bilketari buruzko datuak, Bardoak 2014...

Esataria: *Eneida*

>> Irurtzun

Inasako langile ohiek Baikap itxieraren errudun izendatzea eskatu dute

Hartzekodunen konkurtsoaren dako errudun izendapena nahi dute Inasako langile ohiek, jubilatuek eta alargunek. 600 bat pertsonak guztira. Eskaera horrekin Irurtzongo lantegiaren itxiera ekarri zuen konkurtsoaren arduraguztia Baikap-ena da. Enpresa gaizki kudeatu izanagatik zigortzea eskatzen dute. Horrekin batera, gizarte-aurreikuspeneko funtsa mantentzea eskatu dute. Haren bidez gizarte segurantzak emandako jubilazioak osatzeko, Inasak diru ekarpenak egiten zituen. 600

pertsona horiek euren interesak defendatzeko auzibidea jorratu dute.

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzordeak, bestalde, Baikapeta berekudeatzaileek, nahita edo axolabekeriagatik, Inasa konkurtsoa eta itxierara eramanduten ikertu eta aztertze eskatu diete merkataritza-arloko epaitegiari, fiskaltzari eta hartzekodunen-lehiaketako kudeatzaileari. Aldi berean, haiei eskatu diete Inasakoen gizarte-aurreikuspeneko eskubideak babestu ditzatela.



Langileak itxieraren ondoren ere euren eskubideen alde borrokan daude.

SAKANA

SEEk ibarreko defiziten berri eman dio Barcinari

Sakanako Enpresarien Elkarte (SEE) ordezkariak astelehenean Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariarekin eta Lourdes Goikoetxea lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariarekin bildu ziren. Sakanara egindako bidaiak Arbizuko Baikor Worldwide eta Ziordiko Lazaro Echeverria harrobia bisitatzeko baliatu zuten bi gobernu kideak.

SEEn kezak

Pasa den urtean SEEko ordezkariak ibarreko 80 enpresa baino gehiago bisitatu zituzten eta zituzten arazoak bilduma egin zuten. "Duela urte eta erdi Yolanda Barcinarekin egindako azken bileraetik ditugun arazoak ez dira aldatu" adierazi dute SEEtik. Berritoki ere Sakanako enpresek aspalditik jasaten ari diren egiturazko arazoak konpontzeko neurriak hartzea eskatu zieten Barcinari eta Goikoetxeari.

Gobernuko buruei jakinarazi-



Hasitako zerga-erreformaren prozesuan parte hartzerantz gonbidatu zituzten.

tako arazoak artean daude: enpresek Sakana bertako erakundeentzainaldetik duten babes falta; Sakanaz kanpora zabaldu den irudi txarra; enpresari eta sindikatuen arteko lan-erlazio ez-egokiak; energia arazo larriak izaten diren argindar mozketak txikiengatik; langabezia handia badago ere, gaitutako langile falta; tokiko erakundeak enpresa arloan duten inplikazio eskasa; Lanbide Heziketa indartzea, eskualdeko industria-ehunera egokituz; Sakanako enpresa-pentsaera falta eta enpresariaren

irudi gutxiesgarria.

Egoera samurtzeko zenbait proposamen ere eman zituzten. Gogorra ekarri zuten azken hauteskundeentzain ondoren 175 enpresen sinadurak bildu zituztela. Krisiaren eragina enpresetan arintzeko berehalako neurri zehatzak hartzea eskatu zieten udalei eta gobernuari, "ibarreko berezko arazoengatik larritu egiten dena". Sakanan dagoen industria tradizioa mantendu eta berritzeko egunero lanean jarraitzeko konpromisoa berretsi zuten ere SEEko kideek.

Ikastola, dena bat dator



txioka.haur.ikastola@inigoaritz.com
948 37 30 23
ALTSASU



IÑIGO ARITZA IKASTOLA
ikastola@inigoaritz.com
948 56 29 51
ALTSASU



etxarri@ikastola.net
948 46 02 86
ETXARRI ARANATZ



Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea

astekoa

Gamonalak eta Santa Agedak

Azken aste hauetan sinbolo bihurtu da estatuan Burgosko Gamonal auzoa, hiritarrek korrupzioaren aurrean duten haserrearen eta aldi berean hiritar horien elkartasunak duen indarraren sinbolo. Egun batzuk beranduago, madrildarrek beste garaipen garrantzitsu bat ospatu dute: esku pribatuetan utzi nahiz ziren osasun

zerbitzuak esku publikoetan jarraituko duten momentuz. Berritako hiritarren batasunak lortutako garaipena. Hipotekak kaltetutako plataformak erabali duen lema, "sí se puede" hori, egia bihurtzen ari da.

Sakanan izan ditugu baita gure "gamonaltoak", modu bake-tsuan eta kalera ateraz gelditu

dira zentzurik gabeko proiektu batzuk (dixosozko "makropoli-gonoa", hirigintza proiekturen bat...). Baditugu beste hainbat, era desberdinetakoak, oraindik gure indarrak eskatzen dituztenak: autopista elektrikoaren proiektua edo Dereduaren kontrako eraso, besteak beste.

Baina aste honetan festarako bil-

duko gara Sakanan. Santa Agedak ospatuko ditugu mahaiaren inguruan eta dantza eta farre ugari ere egingo dugu. Pare bat egunetan ahaztuko ditugu aurrean ditugun erronka borobil horiek, arnasa pixka bat hartzeko eta biziak ematen dizkigun momentu onak gozatzeko. Hala ere bizi behar da elkartasuna.

Eta festa pasa ondoren, lanari ekin beharko zaio berriro. Datoren erasoak gelditzeko lanari eta herria eraikitzeke lanari. Azken honi lotuta, zorionak eta animo handiena luzatu nahi diet Guai-xen, azken aldi honetan, azaldu diren gure arteko ekintzaile desberdinei. Beraiek ere beharko dute denon elkartasuna.

barrutik kanpora

Arrakasta itzela

"EUSKARAK 365 EGUN Topagunearen deia jarraituta, eta Aizpeak bultzatuta, Irurtzunen Mosaiko bat eta bideo bat grabatu ziren kanpaina honetarako. Euskarak 365 egun kanpainak, gure hizkuntza egunero erabili behar dugun zerbait dela oroitaraztea du xede.

Publicado el 18/12/2013

Irurtzunen 365 kanpainaren barruan grabatutako bideoa. Aiz-

peak bultzatutako ekimena eta Itziar Matxainek egindako muntaia."

Orain artekoa, Irurtzun Euskaraz blogetik kopiatu eta itsasia. Hitzez hitz. Astelehenean, goizeko 10:10ean 769 erreproduktzio 1:33ko bideo laburrak. Esan dezadan, gainera: erabiltzaile berak bideoa play geitzua bost hamar adiz sakatu eta grabaketa ikusi arren, zenbakia tenkor: 769.

Harrigarria benetan (bisitari kopuruaz arina). Irurtzun bezalako herri koskor batean halako arrakasta!!

Askotan bururatzen zaigu euskararen erabilera indartzeko kanpainak deustarako balio ote duten. Bistan da baietz. Zorionak egile eta "Guk euskaraz" abestu eta dantzatu duten artista haur, gazte eta heldu guztiei. Irurtzun-gu Oscarra, zuena.

Azpian, komentario edo iruzkinak jasotzeko gelaxkak, zuri, hutsik. Aukera alperrik galduta? "Bai, baina..."-ren seinale adierazgarria. Idazteko garaian, behintzat, motz geratu garen seinale. Nahiago omen aho hizkuntza bizi eta goxoa. Zuzena. Zergatik ez, ordea, sareak eskaintzen dizkigun leiho zabal hauetan ere, euskara ikusgarri bihurtu, "euskara mundura jal-

gi"? Eta lehenengo neroni izango banintz? Zergatik ez? "Bideoa zoragarria iruditu zait, freskoa eta bizia....

You Tube klikatu dut, badaezpada. Zenbaki bera: 769. Bihar berriro sartuko naiz.

Aizpea euskara taldea

hara zer dien

Psikoestimulazio lantegiak Josefina Arreguin

Psikoestimulazio lantegien helburua da ezagutza-gaitasunak indartzea eta bizkortzea eta endekatze prozesua geldiaraztea, ahal den neurrian. Terapia ez-farmakologikoen barrenean sartzen dira eta dementzien esku-hartze integral gehienetan aholkatzen eta garatzen dira.

Gure zentroan duela 10 urte baino gehiago antolatu ziren, modu pribatuan. Gehienez 6 edo 7 laguneko taldeak dira. Lantegietan parte hartzen duten pertsonak ezagutza-endekatzea edo demenzia arina izan ohi dute. Zerbitzu

honetara igortzen dituzte ebaluazio mediko eta kognitiboaren ondoren. Gidaritza lanetan klinikako neuropsikologoa aritzen da. Astean bi saio izaten dira, eta zenbait ezagutza-alor lantzen dira: atentzioa, oroimena, hizkuntza, kalkulua, ikusmen-espazialitatea, arrazoitzeko gaitasuna, abstrakzioa edo antolamendua. Bakarkazein taldeka egiten da lan, idatziz, ahoz eta material batzuk erabiliz. Xedeak dira parte-hartzea eta errefortzu positiboa. Etxeko lanak ere egin ditzake nahi duenak.

Lantegien beste helburu garrantzitsua da gizarte harremanak sendotzea, kontuan hartuta parte-hartzaileek harreman sareak alde batera utzi ohi dituztela eta etxetik kanpoko jarduerarako gogobeturi egoten direla askotan. Funtsezkoa da hori guztia giro atsegina eta gozoan egitea eta umore onean. Horrela, parte-hartzaileak mintza daitzek beren sentimendu, bizipen edo kezke, maiz antzekoak izaten dituztelako.

Josefina Arregui Zentroa

objektibo tik



Atsedena hartzen:

Herenegun hartutako irudia. Altsasuko kintoen edertutako borosti makila atsedena hartzen. Eta, bide batez, nola dantza egiten zuten begira. Atsedena eta loa, gutxi bada ere, beharrezkoak izanen baitituzte, bai kintoko bai makilek aurretik dituzten jai-egunak primeran pasatzeko.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILEA: Maria Luisa Zelaia Mendia
ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank
 s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Salburuzordetza

UHARTEKO HAUR ESKOLA KUDEATZEKO DEIALDIA: Uharteko Udalak heldu den ikasturterako Pausoka zentroko haur hezkuntzako eta garbiketa eman nahi ditu.

Kontratua gehienez lau urtera luzatu daiteke. Eskaintzak hilaren 18ra arte aurkeztu daitezke udaletxean.

sakanerria >>

SAKANA

Ikasketa berria mustu du Lanbide Heziketak

Ostegunean hasi ziren mendi ertaineko kirol-teknikaria zikloko ikasketak

Astelehenero eta asteartero 21 ikasleekin handitzen da Sakana Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu Publikoko ikasleria. Mendi ertaineko kirol-teknikaria zikloko ikasketak egiten hasi berri diren ikasleak dira horiek. Ostegunean kurtsoko aurkezpenean bildu ziren estreinakoz eta ostiralean aurreneko klase eguna izan zuten.

Maila ertaineko prestakuntza ziklo horretan interesa 56 pertsonen azaldu zuten. Zerrendaren lehen orrazketaren ondoren, hautagaiak sarrera proba gainditu behar izan zuten: 10 kiloko motxilarekin Beriainen gora eta behera eta Aralarra igo behar izan zuten, baita beste hiru proba gaintzearekin batera. 24 izan dira hautatuak. Lana opatu dutelako edo bestelako arrazoiengatik hiru

hautagai ez dira hasi.

Amaia Rezusta irakasleak esan digunez, oraingo elkar ezagutzen ari dira ikasleak. Azaldu digunez, haietako batzuk aspaldi ez zirela klase batean sartzen eta "nabari da, baina gogotsu daude". Ikasle-eta bi Uharteko Itziar Retegi eta Etxarrin bizi den Jon Goñi dira. Retegik mendia gustatzen zaiolako eman du izena. Goñik, berriz, Elizondon, mendia eta zaldien inguruko beste ziklo bat egina du eta haren jarraipena egin nahi izan du. Biek ere helburu bera dute, titulua ateratzea eta arlo horretan lan egin ahal izatea. Ikasketek galde-tuta aitortu digutenez, "pixka bat kostatzen da baina hartuko diogu". Haien ikaskide batzuk Elizondo edo Iruñekoak direla jakinda, ikasketak Sakanan bertan egitea gauza handia dela esan digute.

Zikloaz

Ikasketa berriek aurreneko kurtsuan 420 orduko iraupena dute. Aste Santua bitartean komuneko prestakuntza eta osagarria jaso-



Gogoz ekin diote ikasleek eta irakasleek ziklo berriari.

ko dute. Horretarako irakasle berri bat etorri da ikastetxera. Oporraldiaren ondoren, maiatzean, mendira aterako dira, klasean ikasitakoa mendian praktikan jartzeko. Horretarako LH institutura 3. mailako kirol teknikari titulua duten espezialistak etorriko dira, eta haiekin ibilbideak eta bestelakoak egingen dituzte. Espezialista bakoitzak 8 ikasle izanen ditu bere ardurapean. Saio horien ondoren, garagarriean, ikasleek

enpresetan praktikak egiteko prest izanen dira.

Ikasketak despeditzeko heldu den urtean bigarren kurtsua egin beharko dute (555 ordu, guztira 975). Behin gradu ertaineko mendi ertaineko kirol-teknikaria zikloko titulua eskutan dutela ikasleek ikastetxe, klub, federazio edota enpresetan lan egiteko aukera izanen dute. Ikasketetan sakondu nahi duenak goi mailako ikasketak egin ditzake.

Sakana LH IIPko eskaintza

Horretaz aparte, honako ikasketak egin daitezke: motorren mekaniko laguntzailea (DBH gaintuz duten ikasleei zuzendutako programa); mantenu elektromekanikoa (gradu ertaina); sodadura eta galdaragintza (gradu ertaina) eta mekatronika industrialia (goi gradua).



Bertako historia turismorako baliabide bihurtuta

Cederna-Garalurrek Nafarroako estatuari buruzko ikastaroa antolatu du langabetu eta turismo-eta zerbitzu-establezimenduetakoei zuzenduta

Nafarroaren historia Sakanan turismo baliabidea izan zitekeela ohartu ziren hainbat eragile eta kezka horri erantzunez Cederna-Garalurrek ikastaroa antolatu du.

Prestakuntza saio hori arlo horretan interesa izan dezaketen langabetuei eta turismo-eta zerbitzu-establezimenduetako langileei zuzenduta dago. Ikastaroan Nafarroako estatuaren historiaren berri

emanen da VIII. mendetik XVI. mendera arte eta aparteko tratara izanen du Sakanan garai hartan bizi izandakoak. Ikastaroa heldu den asteko asteazkenean hasiko da eta 9 saio izanen dira (otsailak 12, 19, 26; martxoak 5, 12, 19, 26 eta apirilak 2, eta 9). Saioak Garalurrek Arbizon duen egoitzan izanen dira (19:00etatik 21:00etara).

Gehiago

Garalurrek aurtengo 20 ikastaroz osatutako prestakuntza programa eskaini dio Nafarroako Men-

Argibideak:

sakana.admon@cederna.es edo 948 567 010. Sakanaz kanpoko ikastaroen berri ere.

dialdeari. Prestakuntza-eskaintza berri horren xedea da herritarrak gaitzea haien lanbide-profilak landa-eremuko garapen jasagarri-rako eskakizunetara egokitzeko, eta, horrela, lehiakortasuna areagotzeko eta enplegu-eta lan-aukerak hobetzeko.

Sakanan beste bi ikastaro ere



Etxeberriko Aixita gazteluan mugarrria jarri zutenekoa.

aurreikusitu ditu Garalurrek. Bate-tik, nire zaletasuna nire lanpostu

bihurtu ikastaroa. Bestetik, zuzenean saltzeko estrategiak ikastaroa.

Uharte Arakil

Pausokako haur eskolako zerbitzua kudeatzeko deialdia

Uharte Arakilgo Udalak haur hezkuntzako lehen zikloko Pausoka zentroko haur hezkuntza eta garbiketa zerbitzuak emateko deialdia egin du. Heldu den ikasturterako deialdia egin du, baina kontratua gehienez ere lau urtera luzatu daiteke.

Udalaren deialdian jaso denez, Pausoka 7 orduz egon beharko du zabalik heldu den ikasturtean. Hura kudeatzeko beharrezko jotzen ditu lanaldi osoan ariko den zuzendari eta hezitzaile bana eta egunero 1,75 ordu ariko den garbitzaile bat. Guz-



Umeak gelan.

tira 63.550,21 euroko aurrekontua aurreikusitu du udalak ikasturte baterako (254.200,84 euro luzapenak betetzen badira). Eskaintzak hilaren 18ra arte aurkeztu daitezke Uharteko udaletxean.

Bakaiku

Gaztainondoen etorkizunaz mahainguruan

Gaur, 18:30ean, Bakaikuko udaletxean

Garai batean aparteko garrantzia izan zuen gaztainak bakaikuarren bizitzan. Gaztaina mozte eguna ospatu izan zen pasa den mendeko 60ko hamarkadara arte. Familia bakoitzak hainbat gaztainondo zituen. Egun bat zehazten zuten Bakaikun gaztainak hartzeko.

Kultura Batzordeak azken urteetan Gaztaina biltze eguna berreskuratu du. Horieta parte hartu duten bakaikuarrek bertatik bertara ikusi dute gaztainondoak gaitxo daudela. Eta hainbat galdera



Bakaikuarrek gaztainak biltzen.

sortu ziren: zergatik gaixotu ziren? Sendatzerik dute? Berriak landatu edo zaharrak kimatu? Nola eta non egin?

Galdera horiei guztiei erantzuna opatu nahi dute Kultura Batzordeko kideek eta, horrela, "basoan nola esku hartu zehazten hasi". Baina horretarako "herri jakintza aberastea garrantzitsua" dela irizita gaurko mahainguruan bakaikuarrek parte hartzera gonbidatu dituzte. Gaztainondoen gaitzen nondik norakoak ezagutzera emateko Berako baso ingeniari bat etorriko da ere bai.

SAKANA

Birziklatzea mikroipuineta

Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroak (CRANA) tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen birziklatzeari buruzko Nafarroako I. Mikroipuin lehiaketa antolatu zuen. Aralarko Mikel Donea Institutuko DBH 1 eta DBH 2 mailako 13 ikaslek hartu zuten parte eta Iratxe Flores lakuntzarrak gazte mailan bigarren saria lortu zuen.

Ostiralean CRANA-k Aralarko Mikel Donea institutua eskertu nahi izan du aipatu lehiaketan ikasleen parte hartzea sustatu izanagatik. "Eneritz Beldarrainek koordinatu du hau guztia, Agenda 21eko Aralarko Mikel Donea institutuko arduradunak, baina Jose

Luis Mendoza irakaslea izan da sustapen lana egin duena. Mendozak gaztelaniako klaseak ematen dizkie DBH 1 eta DBH2ko ikasleei, eta klase horietan, abenduan, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen birziklatzeari buruzko gaia landu zuten. Gero, hala nahi izan zutenek, euren mikroipuin CRANAko lehiaketara bidali zuten" esan zigun zuzendaritza taldeko Erkuden San Martin etxarriarrak.

Ekitaldian, Mendozak gain, CRANA zentroko Elena Cereceda eta Sakanako Mankomunitateko ordezkari Beñat Agirre izan ziren. Agirrek Mank-ek etxetresna elek-

Mikroipuin lehiaketan parte hartu duten Institutuko ikasleak



Ander Agirre (Lakuntza), Alicia Cabezudo (Lakuntza), Leire Chamorro (Altsasu), Ander Chamorro (Altsasu), Iratxe Flores (Lakuntza), Xabier Gasko (Lakuntza), Hodei Hiraldo (Uharteko Arakil), Kepa Hiraldo (Uharteko Arakil), Ricardo Jiménez (Arbizu), Irati Morentin (Etxarri Aranatz), Amaia Olmo (Altsasu), Amaia Vicente (Bakaiku) eta Eider Zia (Altsasu). Hiruren ipuinak irakurri ziren. Guztiek sari bana jaso zuten.

trikoen birziklapenerako dituen zerbitzuen berri eman zien ikasleei. Birziklapenak arrakasta izateko heziketaren garrantzia azpi-

marratu zuen Agirrek. "Ildo honetan CRANAkoek egiten duten gizarteratze lana nabarmentzeko da. Nafarroako Gobernuaren

murrizketengatik kolokan dago CRANA eta gure babesa azaldu nahi diegu" gaineratu zuen. [+www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)



Herri eskolak egun osoko festa ari dira prestatzen

Bat ez beste, Sakanako ikastetxe publikoetako Guraso Elkarte guztiak Sortzen elkarteko kide dira. Guztien artean maiatzaren 10erako ibarreko eskolen festa antolatzen ari dira. Laugarren edizioaren ardura Zelandi eskola publikoak izanen du. Foru plaza eta inguruak hartuko dituen egun osoko egitaraua prestatzen ari dira. Batasunaren eta elkarreraginaren ideia bulkatzeko Sakanako Herri Eskolekin Sortzen leloa



Sakanako herri eskoletako ordezkariak ostiralean bildu ziren.

augeratu dute festarako.

Zelandiako Guraso Elkarteko Begoña Cidek ostiralean egindako bileran jakinarazi zuenez, ospakizuna antolatzeko Altsasuko kultur talde guztiak parte hartzera gonbidatu dituzte. Aurreratu zuenez, ibarreko eskolek euren txokoa izanen dute garatzen ari diren lana erakusteko.

Bilkuran Nafarroako Sortzeneko koordinatzaile Iker Moreno izan zen eta elkarteak azken urte-

etan jorratutako ildoak erreparatu zituen. Genaro Paniaguak, Zelandiako irakasleak, Sortzenek Sakanan izandako bilakaeraren berri eman zuen eta batasunaren beharra eta abantailak azpimarratu zituen. Azkenik, bilkuran Zelandiako Euskaraz Mintza proiektua beste ikastetxetara zabaltzeko aukera eman zen. Jokoen bidez atsedendietan euskararen erabilera sustatzen du proiektuak.



Euskara da Euskal Herri...

Ikastolan euskararen erabilpena sustatzeko asmoz egin zena, ikastolako mugak gainditu ditu

"Egin dezagun euskaraz, Kantatu lan eta jolas, Euskara da Euskal Herri..." Iñigo Aritzak ikastolan auzolanean sortu den *Euskara da Euskal Herri* kantaren leloa da. Mezu sakona eta doinu itsas-korra, hala euskararen erabilpenaren garrantziaz jabetu nahi izan dute ikasleria.

Ilusio, inplikazio eta sormen handiarekin egin da, dagoeneko, 4.600 ikusle baino gehiago izan du cup song-eko bideoak. Eguneroko

laneko filosofian oinarrituz, auzolana izan da oinarri. Guraso, ikasle eta irakasleen artean, letra, musika eta moldaketak egin dituzte.

Sortzetik izatera

0 eta 16 urte arteko ikasleek osatzen dute gure ikastola eta honela adierazi nahi izan da bideo honetan. Mezua lau haizetara luzatu nahian, bideoa ikastoletan lantzen diren lau hizkuntzetan azpigitulatu ikus daiteke. Norbaitek ikusi, entzun, irakurri edo deskargatu nahi badu, www.inigoaritz.com atarian eskuragarri dago.

Urdiain

Eskola First Lego Leaguen programazio onenaren saritua

Ikasturtean zehar natura hondamendiei buruzko lana egin dute, baita robotika tailerra ere

Domeka goiz guztia Baluartean eman zuten Urdiaingo eskolako bi taldek. First Lego League lehiaketako Nafarroako lehiaketa horretan ikasleek ikasturtean zehar natura hondamendiei buruzko lanketa bat egin behar zuten. Programazio hori domekan aurkeztu zuten eta saria eskuratu zuten. Horretaz aparte, Lego piezekin haiek diseinatutako errobotek hainbat egiteko bete behar zituen. Aurreneko ekinal-

dian, urduritasunagatik, ez ziren fin ibili. Bai, ordea, hurrengo bietan. Domina banarekin eta koparekin pozik bueltatu ziren etxera.

Urdiainen uholdeak egoten direnez, haietan zentratu ziren ikasleak. Eta lana egiteko hainbat ate jo zituzten: Urdiaingo errota, udal-txea, David Lizarragarena, Migel eta Julianena, Nafar Erreskate Txakur Taldekoena eta suhiltzaileena. Guztietan uholdeei buruzko argibideak jaso zituzten eta uholdeak eragozteko proiektua landu zuten, Iruñean aurkeztu zutena.



Urdiaindarrak sariekin. Guaixe.net-eko komunitatean azaldu dute esperientzia.

SAKANA

Ikurrak arautzeko Herri Ekimen Legegilea aurkeztu dute

Nafarroako Parlamentuan aurreko ostegunean aurkeztu zuten Nafarroako ikurren erabileran herritarren erabaki demokratikoa eta aniztasunarekiko errespetua bermatzeko Foru lege proposamena. Hainbat ideologia, oinarri eta kultura desberdinetako pertsonak osatutako talde eragile batek aurkeztu zuen Herri Ekimen Legegilea (HEL), haien artean dago Etxarri Aranazko alkate Jose Ignazio Bakaikoa.

Nafarroako banderarekin batera herrietako eraikin publikoetan herritarren babes zabala duen beste ikurrak jartzeko bidea eman nahi du HELe. Horregatik, herritarrek sinboloengainean iritzia emateko tokientitateek herri-galdeketak sustatzea proposatzen dute.

Parlamentuko Bozeramaileen batzordeak HEL proposamena onartu aurretik txosten juridikoa eskatu zuen. Behin Parlamentuan oniritzia jaso ondoren, sustatzailerik sei eta zortzi hilabete arteko epea izanen dute 5.000 sinadura biltzeko.

SAKANA

Mank-ek D ereduaren aldeko gonbitea luzatu du

Hilaren 20tik 26ra zabalik egonen da ikastetxeetan 2 eta 3 urteetako haurrak aurrematrikulatzeko epea. Gurasoek euren seme-alabarendako nahi duten hizkuntza ereduak aukeratzeko garaia da. Horregatik, Sakanako Mankomunitateak gurasoak animatu dituzte haien txikiak D ereduaren matrikulatzeko.

Haurren gurasoei bidalitako gutun baten bidez Mank-ek jaki-



Besteren artean Oier Lakuntzak eta Jone Blanzakok parte hartzen dute kanpainan.

narazi die D ereduak soilik bermatu dezakeela euskara eta gaztelania erabat menperatzea, eta atzerriko hizkuntza batean oinarri sendoa eskuratzea. Gutunarekin batera D ereduaren kalitatea, eraginkortasuna eta emaitza akademikoen berri ematen dituzten bost pertsonen testigantzak helarazi zaizkie esku-orri baten bidez. Haien artean Oier Lakuntza urdiaindarra dago.

Testigantzen bideoa

www.vimeo.com/modelod/testimonios

Joan den urtean jaiotako gurasoei ere banatu zaie esku-orri hori. Hartan D ereduaren arrakastaren formula hala laburbiltzen da: esperientzia + bikaintasuna = emaitzak.

Altsasu

Xurrutek elkartasun poteoko 3.370 euroak eman ditu

Bigarren urtez jarraian eta elkartasun helburuarekin, Urte Zahar arratsaldeko poteoa kobratu egin zuten Altsasuko Alde Zaharreko Xurrut elkarteko tabernetan (Lurrazpi, Urtzi, Xume, Gautxori, Koxka eta Arkangoa). Gastuak kenduta lortutako dirua 3.370 euro izan ziren. Horietatik %70 (2.639 euro) Guaixe astekariari eman dizkio Xurrutek. Altsasuko Xurru-

teko tabernarien izenean Igor Mintegik Guaixeko eta Beleixeko Eneida Carreñori eta Eroskiko Josune Bonori eman zien dirua atzo.

Elkartasun poteoan lortutako diruaren beste %30a (1.131 euro) Nafarroako Jakien Bankurako bideratu du Xurrutek. Altsasuko tabernariak Eroskiren bidez produktuan eman diote dirua Nafarroako Jakien Bankuari.

Eroski berak Altsasuko tabernarien ekimenaren berri izatean bat egitea erabaki du eta emandako dirua baino balio handiagoa duen produktu gehiago eman du Nafarroa Jakien Bankurako (792 pack Kaiku esne erdigaingabetua, Eroski ekilore olioko 100 botila, Coosur olioko 90 botila, 40 kilo barazki poteetan eta 120 euroko laguntza).



Etxarri Aranatz

A13 Ekimena: "Katalunian izandako herri galdeketa berri izatea lagungarri zaigu etxarriarroi"

Herrialde Katalanetako herri galdeketa esperientzia jasodute dagoeneko etxarriarrek. Arey de Mune herri galdeketa nola joan zen eta nola antolatu zituzten ezagutzeko aukera izan dute, batik bat maila teknikoan nola aritu diren azaldu baitie Josep Manel Ximenisek.

Izan ere, "Katalunian herrien %75ak egin du herri galdeketa", Ximenisek azaldu duenez. Manu Gomez A13 Ekimeneko kideak azaldu du, Etxarrin, eurek antolatu behar dutenaren antzerakoak eginak dituztela Katalunian: "Uste dugu posible dela hango herri galdeketa esperientzia hona ekartzea", esan du.

Kataluniako adibidetzat har-

tu arren, nazioarteko ikuspegia ere eman du hitzaldian Arquek. Erabakitze eskubidea nazioartean nola landu den hain zuzen ere.

"Motibazio eta komunikazio kanpainaren barruan kokatzen den ekimena da hitzaldiarena", azaldu du Gomezek. "Herri galdeketa hobekien ezagutzen dituzten pertsonak dira Ximenis eta Arques eta azalpenak ematera etorri izana lagungarria da etxarriandako".

Herritarren parte hartzearekin, kontent

Jendearen erantzunarekin pozik daude A13 Ekimenekoak: "Egin ditugun ekitaldietan hurbildu da



Josep Manel Ximenis eta Anna Arqué azalpenak ematen. MAIALEN HUARTE ARANO

jendea eta interesa adierazi du". Aurkezpen ekitaldiak asko egin dituzte; bilerak kultur etxean eta

herri elkarteetan ere bai.

Ekimen xume gehiago ere egin dituzte datozen egunetan, bai-

ta beste bi herri batzar ere. Lehen ekimenak hasi du bere bidea. Leku bat ari da herrian barna, etxez etxe, herritarren konpromisoa. Lekukoak mezua du barruan. Hori irakurri eta eskuz esku joan behar du. Komunikazio kanpaina berezia da, deigarria eta erakargarria aldi berean.

Otsailaren 20an, ostegunarekin, arratsaldeko zortzietan herri batzarra eginen dute. Protokolo guztiak ongi zehaztu nahi dituzte: zeinek izanen duen aukera galdeketa parte hartzeko adibidez, xehetasun guztiak finkatzeko eta bestelako zalantzak argitzeko ere. Bigarren batzarrean galdeketa-aren eguna bera antolatuko dute.

Satrustegi

Deialdi berria irakaslearen etxea alokatzeko

Satrustegiko Kontzejuak eskatzen duen hileroko errenta 350 €-koa da

Aurretik egindako deialdian eskaerarik ez zen jaso. Satrustegiko kontzeju-etxearen lehensolairuan dago etxebizitza eta 137,87m² ditu. Joan den urtean hainbat lan egin zituzten etxebizitzan. Informazio gehiago nahi duenak Jose Antonio Angulo Bachillerrekin jarri behar du harremanetan (concejodesatrustegi@gmail.com edo 609 422 268).

Etxarri Aranatz

PPko zinegotziak mehatxuak salatu ditu

Bilduk mehatxu horiek salatu ditu eta harekin zerikusirik ez duela gaineratu du

Etxarrin Alderdi Popularreko zinegotzi den Juan Antonio Extremerak Guardia Zibilaren aurrean salaketa jarri du gutun bidez jasotako mehatxu batengatik. Diario de Navarrak zabaldu duenez, Extremerak lantokian jaso zuen gutuna. Idatziak irainekin batera 9 mm-ko bala baten marraskia du eta akaberan Euskadi eta Bildu

goratzen dituen esapideak.

Zinegotziak aipatu egunkariari egindako adierazpenetan esan du ez duela beldurrik. "Botoa indarkeria justifikatzeko erabiltzen dutenen salaketa egiten segituko dut". Boluntario aurkeztu zenean erraza ez zela izanen baze kiela ere gaineratu du popularrak. Igandean, bestalde, El País egunkariak PPko zinegotziak Sakanan bizi duten egoeraz erreportajea argitaratu zuen eta zabal-

du zuenez PPko hautetsi guztiak bizkarzaina dute.

Arbuioa

Bildu Etxarrin ohar baten bidez jakinarazi du PPko zinegotziak jasotako mehatxuarekin, "agerikoa denez", ez duela ezer ikustekorik. Koalizioak Extremerak jasotako mehatxuak arbuia egin ditu eta gogora ekarri du hala egin duela aurretik ere, Bilduko zinegotziak mehatxuak jaso dituztenean. Meha-

txu horiek guztiak ere "elkarbizitza demokratikoaren kontrako egintza" direla adierazi dute Bildutik.

Koalizioko Etxarriko kideek azaldu dutenez, "bake prozesuaren alde, normalizazio politikoaren alde eta askatasunaren alde lan egingen jarraituko dugu". Aldi berean, Bilduk etxarriar guztiei dei egin die "elkarbizitzaren alde eta gizarte demokratiko bat eraikitzearen alde lan egin dezaten, irainak eta probokazioak alde batera utzita".

>> Burunda

Kintoen jai egunak

Bakaikutik Ziordira bitartean kintoen eta kintada guztien ospakizunak izanen dira

Bakaiku

Aurten 5 bakaikuar dira kintoak: Ander Zelaia, Eneko Larraza, Iban Cerezo, Irune Lopez de Zubiria eta Laida Etxeberria. Baina ospakizunera beste hamar elkartuko zaizkie, kinto-gazteak eta kinto zaharrak. Gaur, ostiralean, elkartean bilduko dira bazkaltzera, eta arratsaldean poteoa eginen dute, akordeoia lagun. Atzera ere elkartean afalduko dute eta ondoren parrandaren txanda helduko da. Larunbatean goizeko 9:00etan jarri dute hitzordua, hamaiketako egin ondoren, musika lagun, etxez etxeko eskea egiteko. Herrian jasotakoarekin ikaztegiatoko sagardotegi batera joanen dira bazkaltzera eta parranda Altsasun despidituko dute. Kinto ospakizunak domekan despidituko dituzte. Elkartean afari-merienda eginen dute eta oraindik ere parrandarako gogoia dutenek azken ahalegina egingo dute.

Iturmendi

Bost dira aurten kintoak Iturmendi: Iñigo Galarza, Aritz Gabirondo, Eneko Lopez, Sarai Aramendia eta Marina Arbizu. Baina kinto-gazte eta kinto-zaharrek batera 20 bat batuko dira. Gaur, ostiralean, Aritzaga elkartean afaltzeko elkartuko dira eta DJ Sergueirekin parranda eginen dute. Bihar 10:00etan elkartean gosaltzera bilduko dira. Ondoren, bonboa eta herriko trikitilari eta panderojoleen doinuek iragarriko dute haien presentzia, hala ibiliko baitira etxez etxe, eskean. Elkartean bazkaldu eta karaokean kantatuko dute. Afalduta parranda Altsasun jarraituko dute.

Urdiain

Bost kinto dira aurten Urdiainen: Unai



Altsasun kintoak zortzikoa dantzatzeko.

Azkona, Alain Urrutia, Maialen Garlarza, Ane Razkin eta Nerea Berastegi. Haiei kinto gazteak, zaharrak eta beti kintoak batuta, 15en bat bilduko dira. Domekara bitarteko bazkari eta afariak Kaluxan eta Mareon eginen dituzte.

Gaur bazkaltzera bilduko dira. Ondoren, trikitilarien laguntzaz etxez-etxe axuri baten zozketarako txartelak saltzen ariko dira. Lanak eginda afaria eta parranda zain izango dituzte. Bihar, larunbatean, gosalduek ondoren, eskean ibiliko dira. Baserrietara ere joko dute eskatzera. Afaldu eta gero ordu txikitarraino luzatuko dute parranda. Larunbatean ere Urdiaingo gainontzeko kintadak bazkaltzera edo afaltzera aterako dira, eta jai giro ederra izanen da herrian.

Domeka eguerdian, kintoek eta kinto gazteek, 6 mutikik guztira, zortzikoa dantzatzeko dute plazan. Horretarako zortzikoa entseatzen eta ikasten aritu dire Ipi Zelaiarekin. Bazkariaren ondoren erronda egingo dute, eta afariarekin despidituko dute festa.

Altsasu

Domekara arte festako protagonistak izaten jarraituko dute aurtengo 44 kintoak. Santa Ageda egunetik, iluntzero, kinto eta kintada guztiak plaza banaka-banaka pasatuko dira zortzikoa dantzatzeko. Aurten neskek eta mutikoez, guztiek batera eskatu zuten dirua Santa Ageda egunean, eta guztiak prestatu zituzten opilak. Sabin Aramendiak eraman zien zahatoa.

Saldutako opil eta eskatutako diruari esker, igandera bitarteko bazkari, afari eta festa egunez gozatu ahal izango dute.

Bestalde, herenegun, Santa Ageda egunean zilarrezko, urrezko eta platinozko ezteiak betetzen dituzten kintadak ospakizunetara bildu ziren. Eta, bihar, larunbatean, herri guztia batuko da festara, nor bere kintadarekin bazkaltzeko elkartuko baita. Udalak bere azpiegiturak eskaini zizkien kintadei herrian bazkaltzeko, eta haietako hiruk eskaintza onartu dute. 90 pertsonen bazkalduko dute Burundapilotalekuan. Bestalde, aurtengo kintoek dantzaldia antolatu dute plazan.



Olaztiko kintoak. UTZITAKOIA

Olazti

Asteartean hasi eta domekan, bazkariarekin despidituko dituzte Olaztiko aurtengo 13 kintoek Santa Agedako ospakizunak. Egun hauetan eskean aritu dira kintoak, txaranga lagun, eta Santa Ageda egunean, elizara joan etorria egin ondoren opilak banatu zizkieten alkateari, medikuari, apezari eta herriko gazteenari eta adinduenari. Baserrietarrez jantzita eta mutilak apaindutako makila lagun. Aurtengo kintoez gain, bihar Olaztiko kintada guztiak ospatuko dute Santa Ageda. Aspaldiko herritarrek biltzeko eguna da biharkoa. Plazan dantzaldia egongo da, 20:00etatik 22:00etara eta 00:30etik 3:30era Lisker taldearekin. Euria eginez gero, frontoian izanen da.

Ziordia

Lau kintok, hiru kinto zaharrek eta kinto zahar zahar batek ospatuko dute festa asteburuan. "Aurtenez dagokintoberririk, eta horregatik 3 kinto zaharrek batera kinto zahar-zahar batek ospatuko du festa, kintoekin batera" esan digu Irati Flores kinto zaharrak. Gaur, ostiralean, elkartean bilduko dira

Argazki gehiago

Kintoen argazki gehiago ikusteko aukera www.guaixe.net-en.

zortzirak, bazkaltzera. Poteoan ibili ondoren elkartean bertan afalduko dute eta Altsasura joanen dira. Larunbateguedian etxez etxeko eskea eginen dute, trikitilariak lagun. Elkartean bazkaldu eta poteoan ibili ondoren kinto ziordiarrek Altsasuko bidea hartuko dute, han afaldu eta parranda bertan despidituko. Ziordiko gainontzeko kintadek ere bihar bazkari-afariak egin dituzte.

Domekan, guztiak bazkaltzera bilduko dira Ziordiko Urbasa tabernan. Arratsaldean poteoan ibiliko dira eta afaldu eta ondorengo parrandarekin despidituko dituzte ospakizunak.

KINTOAK

Kintoak: Eider Saez, Ander Mendoza, Asier Ormazabal eta Unai Lasa. Kinto zaharrak: Irati Flores, Jaione Calvo eta Mirena Cristobal. Kinto zahar-zaharra: Ana Iturriaga.

>> Irañeta

Sakanako lehen ihoteak martxan

Atxun Zarkoa izango da protagonista

Burunda aldean kintoen eta Santa Agedaren ospakizunetan murgilduta dauden bitartean, Sakanako lehen inauteriak ospatuko dira Sakanako beste puntan. Larunbatean ospatuko dituzte Irañetako ihoteak. Goizeko 10:00etan elkartean ardi tripotxak gosaltzera bilduko dira irintarrak, eta gosalduek ondoren inauterietako pertsonaia, Atxun Zarkoa, prestatuko dute eta mozorrotu egingo dira. Txuriz jantziko dira, bizkarrean zintak

dituztela, gerriko gorria eta zintadun txanoa jantzita. Segidan, musika lagun, kalejiran ibiliko dira, ezkongai dauden emakumeen etxeetan ezpel adartxoak eta zinta batez bildutako paxoak utziz.

Arratsaldean kalejira

Ardikia bazkaltzera 50 irintar inguru bilduko dira. 18:00etan inauteri kalejira abiatuko da elkartetik, gurdian Atxun Zarkoa eramanen dutela, eta trikiti doinuak lagun. Errondaren ondoren, sutan bukatuko du Atxun Zarkoak. Afariarekin ordu txikiak arte luzatu-



Gero eta gazteagoak parte hartzen dute festan.

ko da ihote ospakizuna.

Bestalde, irintarrek aipatu digutenez, geroz eta jende gehia-

go biltzen da batetik Santa Ageda bezperako koroak kantatzera eta, bestetik, ihauteriak ospatzera.

>> Etxarri Aranatz

Azoka soziala berriro bueltan

Gaur, ostirala, 17:00etatik 21:00etara Etxarri Aranatzko udaletxeko estalopean

Hileko lehen ostiralarekin batera bueltanda Zorri Azoka, azoka soziala. Etxarriko udaletxeko estalopean pasatzen denak bertako barazki ekologikoak, artisautza, bertako produktuak, artea eta musika opatuko ditu. Gainera, Zorri Azokaren produktuen zozketa batean parte hartzeko aukera izanen du bisitariak. Ohi bezala, 19:00etatik 20:00etaragauzak trukatzeko aukera izanen da azokan bertan. Zorri Azokako ilbeltzeko gonbidatua Las mil vidas del carton da.

Hondakin sistema berriaren datuak

SAKANA

Gehiago birziklatzen dugu

Hiru hondakin bilketa sistema erabilia pasa den urte akaberan Sakanan gaikako bilketa %45,49ra igo zen. Nafarroako eta Europako legediak ezarritako %50ekoa betetzeko pausu batera dago gaur egun ibarra

“Sakandarrek esfortzu bat egin izan dute eta ahaleginak merezi izan du”. Hitz horiekin eskertu zituen atzo Mank-eko presidente Aitor Karasatorre Muguruza sakandarrek. Bi datu eman zituen esker oneko hitz horiek arrazoi-tzeko: abenduan gaikako bilketan %83,4koa izan zela atez atekoan eta 4.109 familia ari direla konposta egiten. Karasatorrek Mank-eko gerente Adolfo Araizekin batera joan den urteko hondakin bilketaren datuen berri eman zuen prentsaurrekoan.

Zabor bilketa hobetzea izan da Mank-ek egin dituen aldaketan helburua eta lortzen ari direla nabarmendu du presidenteak. Hala, gaikako bilketa aurreko urte-etan %25aren bueltan zegoen. Lau edukiontzien sistemarekin segitzen duten Irurtzun (2.279 biztanle) eta Altsasun (7.655 biztanle) kopurua antzeko mantentzen da. Herri txikietan (2.049 biztanle) jarri den bilketa sistema misto-arekin hondakin gaikako bilketa % 57,9 izan zen abenduan eta %83,4ra iritsi zen azken hilabete-atan atez atekoa dagoen zortzi herrietan (8.793 biztanle).

Pozteko arrazoiak

Jarritako helburuak bete direla-

ko pozik dira Mank-en. Atez ateko sistema garilean jarri zen mar-txan zortzi herrietan eta iraile-tik gaikako bilketa %80tik gorakoa da. Joan den urteko azken sei hilabeteetako ibar guztiko gaikako bilketa datuak kontuan hartuta %48,40 da. Egungo legediak jarritakoaren %50etik gertu. Eta Irurtzun eta Altsasun ohiko sistemarekin jarraitzen dutenez, Mank-ek datu hori hobetzeko margena ikusten du.

Eta gainera, Sakana osoan gai organikoekin konposta egiten duten familiak 4.109 dira. Araizek azaldu zuenez, “alde izugarria dago materia organikoa bereiztearekin eta ez bereiz-tearekin”. Horrek errefusa gutxiago sortzea eta Tuterako hondakindegira hondakin gutxiago eramatea ekarri du-lako, ia 1,5 tona gutxiago (%22,62ko jaitziera).

Araizek azaldu zuenez, “Nafarroako beste mankomunitate batzuetan gaikako bilketa datuak behera egin duten bitartean Sakanan, berriz, gora egin du”. Beiraren edukiontzian 29 tona gehiago bildu dituzte, papera eta kartoian 13 tona gehiago, pisu arineko ontzietan 68 tona gehiago (batez ere atez ateko herrietan) eta 43 tona gehiago arroparenean (79 guztira). Hala ere, sistema berriak urtea betetzen duenean benetako balorazio eginen dutela adierazi zuen lehendakariak.

Herritarrengandik babes han-



Konposta nola egiten den azaltzeko Etxarri Aranatzan egin zen saioa.

2013ko bigarren sei hilabetea

Herri	Urdina	Horia	Errefusa	Organikoa	Konposta	Beira	Kg guztira	Bilketa selektiboa
Altsasu	175.354	61.999	1.063.706	--	11.396	121.970	1.439.092	%26,08
Irurtzun	54.838	22.810	289.770	--	4.830	30.212	404.177	%28,31
Mistoa	48.860	26.186	222.328	--	113.050	38.836	451.231	%50,73
Atez ate	191.308	110.859	291.096	144.440	413.533	166.015	1.317.252	%77,90
Besteak		6.500						
Sakana	470.360	228.354	1.866.900	144.440	542.809	357.033	3.618.252	%48,40

2013ko lehen sei hilabetea

Herria	Urdina	Horia	Errefusa	Organikoa	Konposta	Beira	Kg guztira	Bilketa selektiboa
Sakana	462.980	165.521	2.967.860	--	--	285.547	3.881.908	%23,5

Bilketa 2013an

Herria	Urdina	Horia	Errefusa	Organikoa	Konposta	Beira	Kg guztira	Bilketa selektiboa
Sakana	933.340	393.875	4.834.760	144.440	687.249	642.580	7.491.804	%35,47

dia jaso dute eta ahalegin handia egin dutela ere nabarmendu dute. Orokorrean atez ateko sistema ongi hartu dela esan zuten Mank-eko ordezkariak. Zenbait herritan batzordeak sortu direla eta Mank-i hobetzeko proposamenak egin dizkietela jakinarazi dute. Dena dela, badira bilketa ereduarekiko zalantzak dituztenak eta boikotatzaileak ere. Olatzagutian jarraitzen berezia egiten ari direla aitort-

2013ko bigarren sei hilekoan errefusa kiloak biztanleko

Altsasu	138,96
Irurtzun	127,15
Mistoa	108,51
Atez ate	33,11
Sakana	89

2012ko eta 2013ko bigarren sei hilekoen bilketan alde

Hondakin	Aldea
Beira	+29.992
Errefusa	- 1.359.420
Papera	+13.640
Ontzi arinak	+68.790
Organikoa	+687.249

2012an eta 2013an Tuterara eramandako hondakinak

Berdea	4.448.660
Errefusa-atez ate+mistoa	363.220
Errefusa-poligonoak	195.540
2013an errefusa guztira	5.007.420
2012an errefusa guztira	6.471.100
Aldea	-1.463.690 -%22,62

tu zuten: “badaude pertsona konkretu batzuk sistema kaltetzen ibili direnak. Askok oso ongi egiten dute, gutxi batzu bazterrak nahasten ari dira”.

Erronka berriak

Irurtzunek eta Altsasuk oraindik ez dute zabor bilketa berririk ezarrita, eta horien herrietan bereiz-keta bere horretan mantendu da. Datozen hilabeteetan herri horietan aldaketak ezartzea da erronketako bat. Bi udalekin hizketan ari da Mank, “hondakin organi-

koari nola heldu aztertze behintzat” esan zuen Araizek.

Baina, aurrera begira ere, hiruko eritasmo dituzte eskuartean. Lehen, konpost planta eraikitzea litza-teke. Bigarrena, enplegu tailerren bitartez 16 lagun birziklatzean prestatu eta trebatu nahi ditu Mank-

ek, gero lanpostuak sortzeko. Horretarako laguntza eskaera luzatu dio Nafarroako Gobernuari.

Azkenik, Frantziako, Belgikako, Espainiako, Eslovakiako eta Txipreko erakundeekin batera hondakin organikoaren balioztatzearen inguruko proiektu bateko kide da ibarreko erakundea. Eskualde bakoitzean hondakin organikoekin ematen ari zaien kon-

ponbidea aztertzen ari dira eta boluntario sare baten bidez maisu konpostatzaileak hezteko litza-teke helburua. Erakunde publikoak, pribatuak eta unibertsitateak daude proiektuan. Europako Enplegu, Gizarte Gaiak eta Inklusio Batzordetik zuzentzen du proiektua. 1,2 milioi euroko aurrekontua du proiektuak. Haietatik 180.000 Sakanakoak.



Probako auzo-konpostagailua.

Zer non aplikazioa

Hasiera batean zalantza zuten sakandarren dei asko jaso zituzten Mank-en. Baina horiek gero eta gutxiago dira. Herritarren zalantzak errazago argitzeko Mank-ek Android plataformako adimendun telefonoendako aplikazio bat mar-txan jarri du: Zernon. Azarotik dago martxan. Eta 24 orduz dei daiteke- en telefonoa ere badago, 900 730 450.

Hondakinaren hiztegi osoa jarri dute kontsultatzeko. Euskarri hori herritarrek Mank-i intzidentzien berri emateko ere erabil dezake-

te, “guk lehenbailehen intzidentzia horiek zuzendu edo bideratzeko”, esan zuen Karasatorrek.

Gune berde finkoa

Gune berde finko bat jartzeko proba pilotua egingen du Mank-ek Etxarri Aranatzan. Horretarako Ecogras enpresaren lankidetzan izanen du ibarreko erakundea. Etxola bat jarriko da Etxarrin eta han atez ateko bilketan jasotzen ez diren beste hondakinak jasotzeko aukera izanen da.

Konposta

Gaur egun Sakanan 184 metro kubiko auzo konpostagailu daude. Horietaz aparte, etxeko konpostagailuek 104 metro kubiko osatzen dituzte. Auzo konpostari jarraitzen berezi bat egiten ari dira gaur egun Mank-eko langileak, “behar duela uste dugu”.

Lakuntzan plastiko birziklatuz egindako auzo-konpostagailu berri bat probatzen ari da Mank eta horren emaitza baloratu ondoren, auzo-konposta Irurtzunera eta Altsasura zabaltzeko asmoa du Mank-ek, orain



Auzo-konpostagailuak Urdiainen.

Herria	Auto	Auzo	Guztira
Arakil	317	146	463
Irurtzun	45	0	45
Irañeta	65	21	86
Uharte A.	108	149	257
Arruazu	28	32	60
Lakuntza	187	200	387
Arbizu	169	159	328
Etxarri A.	243	652	895
Bakaiku	102	28	130
Iturmendi	66	87	153
Urdiain	103	93	196
Altsasu	57	0	57
Olatzagutia	124	439	563
Ziordia	28	185	213
Guztira	1.598	2.409	4.109

arteko egurrezko konpostagailuekin edo plasztiko berriarekin.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com

Naiara Goikoetxea Arteta

Denbora pasa ahala beti gure artean egongo zara. Zure alaitasuna, zuk zenuen poztasuna gure artean geldituko da beti

Zure kinta



Felipe Zeberio Maiza


I. urteurrena



Beti egongo zara gurekin.

Zure emaztea, Aitziber eta Iker

Urdiain - Etxarri Aranatz



Esther Irisarri Garasa Carlos Flores Galarza

Eta bizirik ez dauden
71n jaiotako guztiak.

Zuen kintoak



Felipe Ceberio Maiza

I. urteurrena

Urtiat zube eta geruen ta geruen
geyo botatzen dakizu faltan.

Etxekuek

2014ko otsailaren 4a.

Juan Lazkoz Sukia

(1934-08-23 / 2014-02-01)

Izarren hautsa egun batean
bilakatu zen bizigai...

Beti egonen zara gure bihotzean.

Etxekoak

Susana Vergara Elorza Laura Santiago Aristu Juan Jesus Caro Capellan Agustina Piedra Onieva Luciano Grados Rodriguez

Beti gogoan izango zaituztegu

Olaztiko 1970eko kintoak



**Oroigarriak
egiten
ditugu**

Nahi duzun
argazki
eta testuarekin

GUAIXE
KOMUNIKAZIOA

948 564 275
Foru plaza 23-1
Altsasu
argi@guaixe.net

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

Higiezinak

LURSAILAK

SALGAI

Altsasun hiru lursail salgai. Bat Dermaun eta beste biak Ulaiar aldean. Interesatuak hots egin dezatela 948- 46 74 29 telefonora.

Galdutakoak/ opatutakoak

OPATUTAKOAK

Txakurkume bat opatu da Altsasun. Ibeltzaren 30ean. Hots egin 600- 41 15 62 telefonora.

Etxarriko Uholde Kortan graduatutako betaurrekoi ilunak opatu dira. Deitu 630 47 47 86 telefonora.

Ikastaroak

Cederna. Nafarroaren historia, turismo baliabidea, Arbizun, otsailak 12-19 eta 26, martxoak 5-12-19 eta 26, apirilak 2 eta 9; Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasun, maiatzak 8-15-22 eta 29, ekainak 5; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz sakana.admon@cederna.es - 948 56 70 10.

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>.

Forem Navarra - CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es.

Lehiaketak

Sahari kantari 2014. Saharar herriaren egoeraz sentsibilizatzea helburu duen kantu lehiaketa. Talde eta bakarlariek euren kantak martxoaren 28ra arte auzeratu ditzakete. Informazioa www.saharaikantari-2014.saharaelkartea.org.

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Oharrak

JAIOTZAK

- **Nerea Ganuza Lopez**, ilbeltzaren 29an Altsasun.
- **Simone Flores Agirre**, ilbeltzaren 30ean Altsasun.
- **Leire Lazkoz Etxarri**, ilbeltzaren 30ean Egiarretan.
- **Hegoi Artieda Lanz**, otsailaren 1ean Iturmendin.

EZKONTZAK

- **Iker Eraso Otegi eta Eneritz Sanchez Ugartemendia**, otsailaren 4an Etxarri Aranatz.

HERIOTZAK

- **Andres Ciruelos Garcia**, ilbeltzaren

27an Altsasun.

- **Maria Mateo Larraza**, ilbeltzaren 30ean Unanun.
- **Inocencia Goñi Lakuntza**, otsailaren 1ean Arbizun.
- **Juan Lazkoz Sukia**, otsailaren 1ean Arbizun.
- **Juana Goikoetxea Mendiluze**, otsailaren 2an Olaztin.
- **Bernarda Lizarraga Migel de Etxarri**, otsailaren 2an Etxarri Aranatz.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Etxarriko irakurle taldea. Martxoaren 13an, ostegunean, Andu Lertxundiren "Zoaz infernura laztana" liburuaren inguruan hitz egitera bilduko da.

Nafarroako herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotza behar dugu lelopean. Ekarpinak kontu korrontean (3035 0229 39

2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

Pilota

Sorpresaren bi aurpegiak

EZKURDIAK ETA ZABALETAK OLAIZOLA ETA BEGINO MENPEAN HARTU ZITUZTEN PARTIDA IKUSGARRIAN. ALDIZ, TITIN ETA MERINOREN KONTRA GALDU ZUTEN XALAK ETA ZUBIETAK, PARTIDA ARRAROAN

Binakako txapelketa ez da oraindik erabaki, inola ere ez. 7 jardunaldi jokatu dira eta sailkapena estu dago. Olaizolak eta Aretxabaletak 6 puntu dituzte, Irujok eta Barriolak 5, Berasaluze II.a-Albisuk, Titin III.a-Merino II.ak, Xala-Zubietak, Bengoetxea VI.a-Zabalak eta Urrutikoetxea-Beroizek hiruna puntu eta Ezkurdia-Zabaletak 2 puntu. Hortaz, guztiz zabalik dago txapelketa. Emozioa pil-pilean dago hasierako ligaxkako bigarren itzulian hastear den honetan. Beste 7 jardunaldi geratzen dira eta edozer gerta daiteke.

Ezkurdia-Zabaleta bizirik daude

Ezkurdia eta Zabaletak larunbatean sekulako sorpresa eman zuten, 20-22 irabazi baitzieten Aimar Olaizola eta Aretxabaleta ordezkatzan zuten Beginori.

Zabaletak sekulako errezitaldia eman zuen. Pilota gogoz astindu zuen, erreboteraino bidaliz. Jokoa atzera bideratzea izan zen sakandarraren estrategia eta bete betean asmatu zuten. Gozamen hutsa izan zen Zabaleta lanean ikustea. Olaizolak ez zuen aukera gehiegirik izan errematerako eta izan zituen aukerak ez zituen ohi duen bezain ongi aprobetxatu. Ezkurdiak, gainera, ondo defendatu zuen. Erasoan ezzen

8. jardunaldia

Urrutikoetxea-Beroiz / Ezkurdia-Zabaleta (ostiralean, 20:15ean, Arrigorriagan. ETB1)
Olaizola II.a-Aretxabaleta / Xala-Zubietak (larunbatean, 17:15ean, Gasteizen. NITRO)
Berasaluze II.a-Albisu / Irujo-Barriola (igandean, 17:00etan, Bilbon. ETB1)
Titin III.a-Merino II.a / Bengoetxea-Zabala (igandean, 17:30ean, Tafallan)

Jokoa berreskuratuko dutela espero du Zubietak



Binakakoan ongi hasi ziren Xala eta Aitor Zubietak etxarriarra baina krisialdian daude, azken lau partidak galdu baitituzte. "Ongi, ongi... ez ginen ongi hasi. Emaitza onekin bai, hiru garaipen lortu genituelako, baina txapelketa hasi baino hilabete bat lehenago eskutian arazoekin hasi nintzen. Partida gogorak jokatu genituen eta emaitzak alde genituen, baina ni ez nengoen nire onenean. Bi aste eman nituen frontoetik kanpo, eskuak berreskuratuzko, baina oraindik ez naiz guztiz ongi aritu" onartu du atzelari etxarriarra.

Sentsazio onekin
Dena den, aste honetan positibago dago Aitor. Nahiz eta igandean Titin eta Merinoren kontra galdu, sentsazio onekin geratu zen etxarriarra, eskuak hobe zituelako. "Orain arte ez naiz eroso aritu. Ezin ongi jokatu, ezin gustura entrenatu, juxtu-juxtu, deseroso ibili naiz. Baina eskuak hobeto ditut

eta aste honetan gustura entrenatu dut. Sentsazio onak ditut" adierazi digu etxarriarra.

Gora egingo dutela uste du
Aitor Zubietak azpimarratu du orain arte ez dutela euren mailarik eman "inondik inora. Baina pentsatzen dut gure jokoa berreskuratuko dugula, gorakada emango dugula. Zorte pixka bat behar dugu, Xala eta biok ongi funtzionatzen hasteko. Alde horretatik moralarekin gaude, badakigulako orain arteko emaitza kaxkarren arrazoia zein den, zerk baldintzatzen gaituen. Hobeto nago, eta Xala ausart eta konfiantzarekin bada, eta partidetara garantiek ateratzen bagara, hau da, gure maila emanez, lasai aterako gara gure jokoa egitera eta gora egingen dugu, ziu". Galtzetik datozen Aimar Olaizola eta Aretxabaleta izanendituzte aurkari. Aimarren kontra aritzek ez du Zubietak kezkatzen. "Guk gure jokoa egiten badugu kontra-

ria zein den berdin da. Ongi jokatuta eta gure jokoa eginda irabazten bagaituzte, kontrarioa zoriontzea besterik ez dago, baina orain arte ez indugu ongi aritu eta horrek ematen dizu amorru gehiena. Baina pentsatzen dut gure jokoa berreskuratuko dugula. Aimarrek bolada ona daroma, lesiorik gabe, eta horrek ahalbideratzen dizu modu jarraituan jolastea, ongi ibiltzea. Aparte bera fenomeno bat da, baina guk gurea ematen badugu, jakinda eman ahal dugula, oso zail jarriko dizkiogu gauzak" gaineratu du etxarriarra. Partida lehiatua izango dela aurreikusten du "txoke polita, ikusgarria, biok irabazi nahiko dugulako". Txapelketa oso irekia ikusten du Zubietak. "Bigarren buelta oso faltada eta txapelketa zabal-zabali dago". Denok dituzte aukerak, eta ea Xalaren eta Aitor Zubietaren itzulera iristen den. Ate handitik.

gehiegi luzitu arbizuarra, bizpahiru bi pareta ikusgarri izan ezik. Baina bisakandarrak bikain ulertu eta lagundu zuten elkar eta erritmo handia ezarri zioten partidari.

Bi bikoak parez pare aritu ziren eta tantoak luzeak izan ziren, oso lehiatuak. 16-12 aurreratu ziren Olaizola eta Begino baina sakandarrak buelta eman zioten. 20ko ber-

dinketaren ondoren, Zabaletak bi zartako ikusgarri eman zizkion pilotari eta horrela irabazi zuten partida. Sakandarrak lehiatzen jarraitzen dute.

Aitor Zubietaren eta Yves Xalaren krisialdia

Arraroa izan zen igandean Adarragan jokatuako partida. Hasieran errioxarrak 4-2 aurreratu ziren, baina Xalak eta Zubietak, mugitzea gehiago kostatzen zen pilota batekin, koska ederra atara zieten errioxarrei, 5-11 aurreratu, lapurtarraren erremate bikainei esker. Ongiaritu zen Xala aurrean. Baina errioxarrek 15era berdindu zuten eta hortik aurrera Xala eta Zubietak gaituzten. Aitor Zubietak ez zuen asmatu Titini airea kentzean eta hor hasi zen Titinen erremate festa, euren pilota biziagoari esker. Nahiz eta aurrean Xala Titin baino hobeto aritu, atzeko koadroetan Merinok maila bikaina eman zuen eta etxarriarra dominatu zuen. Zubietak akats gehiegi egin zituen eta badirudi oraindik ez duela bere jokoa berreskuratuko. Hala ere, 20-19 agurturatu zuten Xalarekin eta Zubietak, baina zortea errioxarren aldekoa izan zen, eta, azkenean, 22-19 gailendu ziren.

Zabaleta sukarrarekin



Asteazkenean material aukeraketa egin zuten, Arrigorriagan, Urrutikoetxea-Beroizek eta Joseba Ezkurdiak. Jose Javier Zabaleta ez zen aukeraketan egon, sukarra zuelako, dezima gutxi batzuk. Ezkurdiak aipatu zuen 2 puntu dituztela eta txapelketan aukerak izaten jarraitzeko irabazi beharrean daudela, 5 biko baitaude berdinduta 3 punturekin. Ea sakandarren bolada onak jarraitzen duen.

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es

nereacnoz
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatuak (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacnoz.com
nereacnoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · LAKUNTZA
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

R.P.S. Nº 272/04

Atletismoa

Javi Moreno garaile Lodosan

Oihan Pérezek kadeteen proba irabazi zuen

Larunbatean San Blaseko X. Kro-sa jokatu zen Lodosan, La Tejeria-komotokroszirkuituan. Kategoria guztiak kontuan hartuta 150 korrikalarik hartu zuten parte. Dantzaleku Sakanako Javi Morenok irabazi zuen 4 km pasa zituen proba nagusia (14:30), Xabier Fernandez (15:05) eta Francisco J. Lopez (15:11) korrikalarien aurretik. Emakumezkoetan Naiara Casi nagusitu zen (17:59). Beteranoen mailan Juan-txo Azurmendi altsasuarra 11.a sailkatu zen (16:49) eta Juan Carlos Pérez altsasuarra 14.a (17:42).

Etorkizuna

Kadeteetako lasterketa (2,4 km) Dantzaleku Sakanako Oihan Pérezek irabazi zuen (11:06). Kimuen mailan (850m) Ekaitz Pérez 8.a sailkatu zen (3:54). Zorionak guztioi!



Goian Javi Moreno eta behean Oihan Pérez, podiumaren goian. UTZITAKOAK



Areto futbola

FUTSAL SAKANA TXAPELKETA

Racing San Migelen gol festa

UHARTEARREK JARRAITZEN DUTE LIDER. ASTEBURU HONETAKO JARDUNALDIA ATZERATU DA.

11. jardunaldiko emaitzak

Racing San Migel **20** - Bunker **4**
 Arbizu K.T. **5** - Iturmendi **3**
 Etxarriko Gaztetxie **4** - Bil Toki **3**
Atsedena: Auzomotojorik

Futsal Sakana areto futbol txapelketako 14. jardunaldia jokatu zen ostiralean. Racing San Migel talde uhartearrak lidergoa sendotu zuen, Bunker taldea 20-4 menpean hartu eta gero. Bunkerrek baja ugari izan zituen eta ahal izan zuen moduan egin behar izan zion aurre liderrari. Racingeko Jose Maria Gorritik 11 gol sartu zituen.

Arbizu eta Iturmendiren kontrakolehian 0-2 aurreratu ziren iturmendiarrak, baina Arbizukoak erremontatzeko gai izan ziren eta 5-3 nagusitu ziren bukaeran. Eta hirugarren partidan, Etxarriko Gaztetxiek gutxiatik irabazi zion Altsasuko Biltokiri, 4-3, partida estu eta lehiatuan. Jurgi etxarriarrak 3 gol sartu zituen, hat tricka. Racing San Migel da liderra (25



Bunkerrek galdu egin zuen liderraren kontra.

puntu), Auzomotojorik 4 puntura duela (21 p.). Arbizu da hirugarrena (18 p.). Atzetik daude Etxarriko Gaztetxie (10 p.), Biltoki (9 p.) eta Iturmendi eta Bunker (seina puntu). Golegile edo pitxitxi sailkapenari dagokionez, Racingeko Asier Turunbaida pitxitxia (22 gol), Etxarriko Gaztetxeko Jurgi Kintana (20 gol) eta Racingeko Jose Maria Gorriti (16 gol) gertu dituela.

Jardunaldia atzeratuko da

Santa Ageda ospakizunak direla eta, asteburu honetan jokatzeko azen 12. Jardunaldia hurrengo asteburura atzeratu da, otsailaren 15era.

www.futsalsakana.es
 Txapelketako informazio guztia, kronikak barne. Facebook eta twitter sare sozialetan ere.

Trinketea



NAFARROAKO TRINKETE TXAPELKETA

Aristorena garaile

Nafarroako Trinkete Txapelketako 4. jardunaldia jokatu da asteburuan. Emakumezkoen paleta goman, Obereko Aristorena etxarriarrak eta Zamorak 30-12 irabazi zieten euren taldekide Leunda eta Maite Urtsuni. Asteburu honetan Etxarri-Continen kontra ariko dira Aristorena eta Zamora. Bestalde, eskuzko binakakoan, Obereko Koldo Murgiondo eta Etxeberria etxarriarrak garaienez gozatu gabe jarraitzen dute, Erreka taldeko Bendoiro-Zabalzak 40-5 irabazi baitzieten.

Pilota



ESPAINIAKO KLUBEN ARTEKOA Irurtzun eta Altsasu txukun

Asteburuan Espainiako Kluben Arteko txapelketako 5. jardunaldia jokatu zen. A multzoan, eskuzko modalitatean, Irurtzunek Paz Ziganda hartu zuen menpean. Banakakoan Armendarizek 10-4 eta 10-9 irabazi zion Rekalderi, eta, binakakoan, Ongay-Bergera 10-6 eta 10-2 gailendu ziren Zuasti eta Telletxearen aurrean. Altsasuk Obereko izan zuen aurkari. Banakakoan, Obereko Vidan 10-2 eta 10-0 nagusitu zitzaion Altsasuko Aiestari. Binakakoan, Arrieta eta Peñas altsasuarrek Diaz-Isturriagaren kontra berdindu egin zuten (8-10 eta 10-2), baina berdinketa hausteko hirugarren jokoa 5-4 gailendu ziren altsasuarrek.

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA
 23. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 1 - MURTXANTE 2
 Gauzak asko zailtzen ari zaizkio Lagun Arteari 3. mailan. Barkatzen duenak galdu egiten du futboleko eta hori gertatu zitzaion Laguni. Lakuntzarrek lehen zatian bospasei gol aukera argi izan zituen eta barkatu egin zuten. Aldiz, Murtxante behin iritsi zen kontrako atera eta gola sartu zuen. Hala ere, Lagun Arteak berdindu egin zuen, 40. minutuan, Arratibelen golari esker. Bigarren zatian egoera bera errepikatu zen, Lagun Arteak behin eta berriz huts egin zuen. Gainera, 78. minutuan, Adrian Vicente eta Laguneko Orrio atezainaren arteko zorigaitzoko jokaldi batean, baloia Lagunen atean sartu zen. Hortik aurrera, etengabe saiatu zen Lagun Arteak, baina ezin izan zuten ezer lortu eta 3 puntuak Murtxanteri joan ziren. Jaitsiera postuak oso gertu dituzte lakuntzarrek, eta, gainera, Ruben Morillas galdu dute, lesioagatik.

Sailkapena >>

1. San Juan	53 p
16. Lagun Arteak	23 p

Asteburuko jardunaldia
CORELLANO - LAGUN ARTEA
 (Ilgandean, 16:15ean, Corellan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa
 18. JARDUNALDIA

BETI ONAK B 2 - LAGUN ARTEA B 2
ALTSASU - BETI KOZKOR (Bertan behera)
ETXARRI - LAGUNAK (Bertan behera)
 Altsasu eta Beti Kozkor taldeen arteko lehia jokatzeko hasi zen Dantzalekun, baina 20 minutu pasa eta gero, markagailua Oan zegoela, bertan behera utzi zuen partida arbitroak, elurragatik. Etxarri Aranatz eta Lagunak taldeen arteko partidan lehen zati osoa jokatu zen, baina ondoren bertan behera utzi zuen partida arbitroak, Etxarri Aranatz 2-0 irabazten zihola. Bestalde, Beti Onak B-k eta Lagun Arteak B-k bina berdindu zuten Atarrabian jokatu partidan. Beti Onak 2-0 aurreratu zen eta gol aukera gehiago huts egin zituen. Aldiz, Lagun Arteak B-k berdintzea lortu zuen kontrako atera iritsitako bi jokaldietan, puntu bat lortuz.

Sailkapena >>

1. Lekunberriko Beti Kozkor	39 p
4. Lagun Arteak B	31 p
8. Altsasu	25 p
15. Etxarri Aranatz	16 p

Asteburuko jardunaldia
LAGUN ARTEA B - KIROL SPORT
 (Larunbatean, 16:00etan, Berriozarren)
DONEZTEBE - ALTSASU
 (Ostiralean, 20:00etan, Donezteben)
ARDOI - ETXARRI ARANATZ
 (Ilgandean, 16:30ean, Zizurren)



Futbola / Saskibaloia

Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketan eta I. Sakanako Saskibaloia Topaketan ez dago jardunaldirik

Santa Ageda ospakizunak direla eta, asteburu honetan ez da Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketarik eta I. Sakanako Saskibaloia Topaketarik jokatu. Otsailaren 16an jokatu da aipatu bi txapelketetako hurrengo jardunaldia.

uharte arakilgo udala

LURZORU URBANIZAEZINEAN HIRIGINTZA ARLOKO ONESPEN, BAIMEN ETA LIZENTZIAK EMATEA ETETEA

Uharte Arakilgo Udalak, 2014ko urtarrilaren 23ko osoko bilkura berezian, lurzoru urbanizaezinean hirigintza arloko onespenei, baimen eta lizentziak emateari etetzeko akordioa hartu zuen. Argitara ematen da, orok jakin dezan.



Uharte Arakilen, 2014ko urtarrilaren 31n.

Alkate udalburua, Javier Rodríguez Astiz

UHARTE ARAKILGO UDALA

FRONTOIAKO TABERNA

948 469 138
ERKUDEN 4 · ALTSASU

Tel.: 948 562 829
 faxa: 948 563 002

Unamuno
 ALTSASU

OILATEGIKO ANIMALIEN PENTSUA 10KG.KO POLTSETAN

Txirrindularitza

Rural Kutxa, ilusioa eta baikortasuna

TALDE PROFESIONALA ETA AMATEURRA AURKEZTU ZITUZTEN BALUARTEN

Aurreko ostegunean Rural Kutxa-Seguros RGA taldearen aurkezpena egin zen bete bete zegoen Iruñeko Baluarten. Juan Mari Guajardo altsasuarrak egin zituen aurkezpen lanak. Nafarroako Gobernu eta Iruñeko Udaleko ordezkariak izan ziren ekitaldian eta baita taldeen babesleak eta zale ugari.

Rural Kutxa Sakanatik sortutako taldea da. Rural Kutxa-Seguros RGA talde profesionalaren 5. urtea izango da aurtengoa. Hala ere, taldeak 1992tik ditu talde amateurak eta kategoria txikikoak. Talde profesionala 20 txirrindulari osatuta dago eta 26 urteko batz bestekoa du. Gaztetasuna eta heldutasuna tartekatzen ditu. Ruben Fernandez, Franceso Lasca eta Fernando Grijalba bezalako gazteak, Luis Leon Sanchez, Amets Txurruka eta David Arroyoekin batera ariko dira. Soilik txirrindulari nafar bat izanen du Rural Kutxak: Javier Aramendia.

Aurkezpenean ezin izan zen Rural Kutxako presidente Floren Esquisabel egon, ebakuntza bat dela medio. Bere tokian Juanma Hernandez managerrak hartu zuen hitza. Denboraldi berrirako taldearen espektatibak "ilusioa" eta "baikortasuna" direla nabar-



Juan Mari Guajardo speaker altsasuarrak egin zituen aurkezpen lanak. Ekitaldian Indurain eta Perurena izan ziren.

menduz. Taldearen helburu nagusiak probetan "presentzia izatea" eta "Vueltan egotea" direla gaineratu zuen Hernandezek. "Ziur nago txirrindulariek %100a emango dutela. Espero dut zaleek zuten babes ematea" eskatu zuen. Luis Leon Sanchezekin kalitateko salto eman du taldeak. "Txirrindulari irabazle bat izateko fitxatu dugu eta badirudi denborak eta lasterketek arrazoia emango digutela" esan zuen, bere alde, Eugenio Goikoetxeak.

Odei Juango > Talde amateurren



Rural Kutxaren oinarria harrobia da; txirrindulariak sortzea da bere filosofietako bat. Horrela, talde nagusiarekin batera Rural Kutxa afizionatuen taldea aurkeztu zuten Baluarten. 17 txirrindulari osatuko dute taldea eta soilik 3 dira nafarrak: Josu Zabala, Migel Indurain, Indurain handiaren semea, eta Odei Juango lakuntzarra (argazkian, ezkerrean).

2014 denboraldia

Rural Kutxa afizionatuak

Arnau Soé, Asier Unanue, Cristian Rodriguez, Daniel Lopez, David Civera, Francisco José Medina, Hector Sáez, Igor Romero, Iker Azkarate, Jesus Alberto Rubio, Josu Zabala, Juan José Tamayo, Marcos Altur, Migel Angel Benito, Migel Indurain, Odei Juango eta Jonathan Las-tra.

*2010ean 42 garaipen, 2011n 55 garaipen, 2012an 25 garaipen eta 2013an 20 garaipen

Rural Kutxa talde profesionala

Antonio Piedra, Fabricio Ferrari, Francesco Lasca, Javier Aramendia, Karol Domagalski, Marcos Garcia, Amets Txurruka, David Arroyo, Omar Fraile, Ruben Fernandez, Ramon Domene, Fernando Grijalba, Antonio Molina, Angel Madrazo, Lluís Mas, Pello Bilbao, Heiner Parra, Davide Viganò, Iban Velasco eta Luis Leon Sanchez.

Zuzendariak: Eugenio Goikoetxea eta Jaime Garzon.

* Rural Kutxa talde profesionalak 5 garaipen lortu zituen 2010ean, 2 garaipen 2011n eta 8 garaipen 2012an. 2013an Errioxako Itzulia (Lasca), Asturiaseko Itzulia (Txurruka) eta Vueltako lehiakortasun saria (Aramendia) lortu zituen.



Movistarrek handietako bat irabazi nahi du

OSTIRALEAN EGIN ZUEN AURKEZPENA MADRILEN. 27 TXIRRINDULARI IZANGO DITU TALDEAK, VALVERDE ETA QUINTANA BURU DIRELA.



Movistar 2014 taldeko argazkia, aurkezpen ekitaldian. MOVISTAR

2013an UCiko rankingean talde onena izan zen Movistar eta aurtentzen ere asmo hori du Eusebio Unzué-ren taldeak. Hiru handietako batean -Giroa, Tourra eta Vueltan- garaipen lortu nahi luke Movistarrek. Hori da bere helburu nagusia. Alejandro Valverde eta

Nairo Quintana izango dira talde buruak, eta aurtengo fitxaketa inportanteenak Igor Anton, Juan Jose Lobato eta John Gadret dira. 27 txirrindulari ditu taldeak. Valverde izango da Movistarren apustua Tourrerako eta aurreko urtean Tourrean bigarrena izan zen

Nairo Quintana izango da talde burua Giroan. Espainiako Vueltara biak joango dira.

Taldeko sakandarrak: Erbiti eta Arrieta

Imanol Erbitik bere 10. denboraldia egingo du taldean, 2005ean

Pablo Urtasun Dalcahueko Itzulian



Chileko Chiloé irlak Dalcahueko Itzulia hartu zuen asteburuan. Temuco hiriko Gerson Zuñiga izan zen txapelduna, Curicóko Jose Gutierrezen eta Mauleko Mandel Markezzen aurretik. Probari bere babes emana zion Pino Road taldeak. Chileko aipatu taldearen proba gertutik ikusi zuen Pablo Urtasun urdiaindarrak, Dalcahue, lizentzia ez baitzaitzaion garaiz iritsi.

debutatu baitzuen Eusebio Unzué-rekin. Palmaresean hiru garaipen dauzka: 2011ko Errioxako Itzulia, 2008ko etapa bat Espainiako Vueltan eta 2010eko etapa bat Espainiako Vueltan. Talde gizon bikaina da Hiriberrikoa, oso estimatua, eta Movistarreko beterranoetako bat da. Aurtentzen ere liderrak laguntzea izango da bere egitekoa.

Jose Luis Arrietak Movistarreko kirol zuzendari lanetan jarraituko du. Txirrindulari profesionala urte askotan, txirrindulari utzi eta berehala onartu zuen Movistarrek kirol zuzendari izateko egindako eskaintza. Taldeko gizon estimatuenetakoa da uhar-tearra, zuzendari handia, bere gidaritzapean garaipen handiak lortu dituenak.

kultura >>

Goikoetxea de Jorge estatuko argazkilarien bilduma batean

Berriki *Diccionario de fotógrafos españoles* (2014, La Fábrica eta Accion Cultural Española) argitaratu dute. XIX. mendetik gaur egun arte argazkigintzan aritu diren estatuko 600 sortzaile baino gehiagoren zerrenda jasotzen du lanak. Hainbat ilustrazioz lagunduta argitaratu da. Estilo guztietan aritutako argazkilaria opatu daitezke liburua 660 orrietan: argazkilaritza klasikoak, erreportajea, moda, publizitatea, artxiboa, prentsa, erretratuak, arkitektura eta paisaia.

Miguel Goikoetxea de Jorge Liburuan Migel Goikoetxea de Jorge dago (Altsasu 1894-Iruña 1983). Lizarrakogurasoak Burundara bizitzera etorri ziren, baina bera haurra zela Iruñera lekualdatu ziren. 1914an anaia Eduardorekin batera Bordelera joan zen eta 1916 edo 17ra arte han bizi izan ziren. Bordelen ezagutu zituen kopia pigmentatuen edertasunak harrituta, argazkilarizateko erabakiarekin bueltatu zen.

Altsasuarrak piktorialismoa landu zuen. Hau da, argazkia egin ondoren esku sartu eta pinturaren berezko itxura ematen zion. Tekni-



Miguel Goikoetxea de Jorge.

ka horretan ordezkari nagusietako bat izan zen. Datatuak dauden bere aurreneko argazkiak 1917koak dira. Hasierako argazki gehienak estereoskopikoak dira. Baina berehala hasiko zen teknika piktorialistarekin, pigmentu-prozesuekin esperimentatzen. Bere ibilbidean teknika horren arloguztiak landu zituen.



Iruñera joan zen bizitzera. Argazki-lanek laster sariak eta aitortza ekarri zituen, estatuan eta nazioartean. 1920 eta 1936 artean sorkuntza handieneko garaia izan zen eta bere lanak Madril, Zaragoza,artzelona, Paris, Milan eta Londresen erakutsi zituen. Orduko argazkilaripiktorialista garrantzitsuenekin

harremana izan zuen. Hainbat aldizkaritan parte hartu zuen.

Gerra bukatzean eta ama hil ondoren, Goikoetxeak bizitza soziala mugatu eta bere baitan bildu zuen: paisaia eta eszenen tokia estudioko erretratuak hartu zuten. Bergamin kaleko etxeko dorretako batean zuen estudioan egiten zituen argazkiak.



Abortoaren Legearen kontrako film kolektiboa

Helena Taberna zuzendari altsasuarrak parte-hartzaileen artean

Asturiasko emakume taldeek proposatuta, larunbatean, Madrilan, Gallardon ministroak sustatutako Abortoaren Legearen kontrako eta egun

dagoenaren aldeko manifestazio jendetsua egin zen Madrilan. Estatu guztitik joandako jendea bildu zen *porque yo decido* leloa zuen manifestazioan. Baita zinemagintzan ari diren emakumeak. Zuzendari, gidoilari, muntatzaileak... guztira 60 emakumek bat egin

Sarean

www.facebook.com/trendelalibertad@trencineastas

dute protestaldi horren inguruko dokumentala egiteko. Horien artean dago Helena Taberna zuzendari altsasuarrak.

Kinto ospakizunetarako melodiak Maisuenean

Gaur, 23:00etan, Olatzagutiko gaztetxean Nekez eta Kauta ariko dira

Melodiko adjektiboa jarri diete gaur Maisuenean ariko diren bi taldeei. Kautak itxiko dugaua. Andoango hirukoak bere estudioko laugarren diskoa, *Agerre*, aurkeztuko du gaur Olatzagutian. Lau urteko isilunearen ondoren, azaroan argitaratu zuten diskoa da. Kautak Andoango Agerre baserrian du bere estudio-entsegu lokala. Taldeak atsedena diluzia hartu arren taldekideek hainbat

ordu sartu dituzte tarte horretan eta landutakoa diskora eramatea erabaki zuten. Ahotsaren melodia txukunetan oinarritutako rock-pop doinuak eskainiko dituzte, abiadura ahaztu gabe.

Aurretik Iruñerriko Nekez taldea ariko da. Laukoak pasa den urtean argitaratu zuen *Zure esku* diskoa aurkeztuko du Olatzagutian. Haien hirugarren lanean rock-metal melodikoa eskaintzen dute. Euren kantuen letrak gizarte gaien inguruko salaketa eta informazioa zabaltzen dute.



Santanoren lanetan gehiago murgiltzeko

Helena Santanok bere erakusketaren bisita gidatua egingen du, ostegunean, 19:30ean, Altsasuko Iortia Kultur Gunean

Otsailaren 16ra arte dago zabalik, Altsasuko Iortia Kultur Gunean, Helena Santano altsasuarraren *Orainetik iragana eta geroa eraikitzen* erakusketa. Bertan bere ibilbide guztian barna egindako lanak topa daitezke. Artista altsasuarrak bere erakusketa action painting arrakastatsuekin mustu zuen: DJ Jurgi Oraak jarritako musikak sorrarazten ziona mihi-sera eraman zuen.

Santanoren lana gertuagotik ezagutu nahi dutenek aukera paregabea dute, ostegunean, otsailaren 13an, Helena Santanok bere erakusketaren bisita gidatua egingen baitu. Margolan bakoitzari buruzko azalpenak emango ditu artistak, eta bere lanak arte mugimenduetan kokatuko ditu.



Buruhandiak sortzeko aukera



Heldu den ostegunean, 18:30ean, Olatzagutiko ludotekan informazioa eta aurre-lanei buruzko bilera

Olatzagutiko Udaleko Kultura Sailak buruhandiak egiteko tailerra antolatuko du. Helduei zuzendutako tailerra da eta martxan jartzeko gutxienez zazpi eman behar dute izena. Martxoaren 15ean hasita, bederatzi larunbat goizetan egingen da tailerra, egunero bi ordu eta ardiko saioetan.

Izena eman nahi duenak hila-ren 13a baino lehen egin behar du. Horretarako ludotekatik pasa edo 699 635 187 telefonora hots egin behar da. Akelarre ludotekako bazkide diren familiek izen ematea dohainik dute, ez direnek 33 euro ordaindu beharko dituzte.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea

9 lagunendako
TAXIA

Jon Kordon

948 500 388 / 629 428 025
IRURTZUN

JUANLUZENE
SAGARDOTEGIA

urtariletik maiatzera
tel. 948 604 571
680 652 183

ODERITZ

Sakanako Bardoak lanera

Arbizuko Argibidea elkartearen, gaur, 22:00etan, Leitzako Harrapazank eta Sakanako Bizkorratxiko taldeak ariko dira

Gaur jarriko da martxan Bardoak, Nafarroako taldekako bertso ekimena. Nafarroako Bertsozale Elkartearen ekimenak bertsolari eta bertsozaleen harrobia berri, gune berrietara zabaldu eta bertsolari-tza gozamen gisa eskaini nahi du. Hala, lehiaketak iraungo duen bi hilabeteetan Nafarroako inoizko bertsolari kopururik handiena aterako da plazara: 60, duela bi urte baino 9 gehiago. Eskarmentu handiko bertsolariekin batera hasi berriak ariko dira, taldekako lehian.

Bardoak ekimenean parte hartzen duten 110 pertsonak 16 taldeetan banatuta daude, eskualdeko bertsoeskolen arora (taldeko, gutxienez, hiru bertsolari, gai-jartzaile/aurkezlea eta taldeko ordezkaria). Bost multzotan banatu dituzte eta bi itzuliko ligaxka jokatuko da gaurtik otsailaren 23ra arte.



Sarean

www.bertsozale.com
www.bertsoa.com

Multzo bakoitzeko talde bana pasako da bigarren fasera, sei guztira. Martxoaren 7tik 30era taldeak bina-ka neurtuko dira, joan-etorrian eta Lesakan apribilaren 12an jokatuko den finalera hiru talde iritsiko dira.

Txapelketaren berezitasunak

Finala salbu, saioak elkarte girokoak izanen dira, "kalitatezkoak, hurbilak, gozoak eta berritzaileak". Mahai inguruan edo bestelako ekitaldiekin osatuko dira. Bardoak ekimenean talde lana izanen da oina-

Lehen faseko lana

Taldeek egin beharreko lana: hasierako agurra, taldeka (puntuagarria); zortziko handian, binakagaia emanda, hirunabertso; zortziko txikian, binaka, ofizioka, hirunabertso; hamarrekotxikian, binaka, ofizioka, hirunabertso; gaia eta oinak emanda habanera

doinuan bertso bana; objektu bati bertso bana; azkena izanen ez den puntua emanda, bertso bana; koplak (launa koplak osatu arte); zortziko txikian hiru punturi erantzun; gaia emanda bi bertso osatu; puntukako saioa taldekideen artean (sei bertso osatu arte); eta bukaerako agurra, banaka (ez da puntuagarria).

ria eta, beraz, denen artean banatu beharko dute lana. Taldeen egitekoa ere saioen antolaketa izanen da. Epaila lanetan ere ariko dira, talde bakoitzak beste multzo bateko saioak epaitu beharko ditu. Baina horretarako ez dute puntuazio-

rik jarriko. Ariketaz ariketa talde onena aukeratu dute. Entzuleek ere saioan hobekien zein aritu den baloratzeko aukera izanen dute. Bi irizpide horiek kontuan izanda erabakiko dira lehen fasean saio-etako irabazleak.

Sakandarrak: Bilixkorriko, Bizkorratxiko eta Haizea Beruete



Bardoak lehiaketaren aurreneko edizioan Etxarri Aranatzko talde bat aritu zen. Aritu ziren sakandar gehiago baina ibarretik kanpoko talde ezberdinetan banatuta. Bigarren edizioan Sakanako bi talde parte hartuko dute lehiaketan: Bilixkorriko eta Bizkorratxiko. Bilixkorriko taldea Eneko Lazkoz, Oier Lakuntza, Alain Iriarte eta Unai

Artieda bertsolariak osatzen dute. Maider Ansa dute aurkezle eta ordezkaria, berriz, Artzai Iraurgi izanen da. B multzoan ariko dira Iruñeko Mirristi Drimtim (Xabier Terreros, Unai Uberetagoena, Asier Saragueta) eta Malerreka-Baztango Etxeko Kontuk (Iker Gorosterrazu, Egoitz Gorosterrazu, Amaia Elizagoien) taldeekin batera.



Bizkorratxiko taldean bertsoan ariko direnak Josema Leitza, Joseba Beltza, Saats Karasatorre eta Aitor Zubiria izanen dira. Taldeko aurkezlea eta ordezkaria Jon Arratibel da. D multzoan Barañaingo Miluzeko barañetak (Ander Baiano, Ander Perez, Mintxo Astiz, Pablo Perez, Edurne Errea, Iker Mundiñano) eta Leitzako Harrapazank (Migel Mari

Elosegi "Luze", Iñigo Ibarra, Joanes Illarregi) taldeekin neurtuko dira. Horretaz aparte, Haizea Beruete bertsolari lakuntzarra Txantreako 12 obario eta 11 pedrada taldean ariko da. Kide izanen ditu Erika Lagoña, Saioa Alkiza eta Irati Majuelo bertsolariak. Haiekin batera Eider Azkoaga aurkezlea eta Idoia Saez ordezkaria izanen dira.

Lertxundi irakurgai Etxarrin



Euskaraz irakurtzeko ohitura indartzea eta irakurritakoaren gainean beste herri-tar batzuekin hizketatzeko asmoz sortu da ikasturte honetan Etxarri Aranatzeko Irakurketa Taldea. Bi hileroko hitzordua jarrita dute. Hala, aurreko astean Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* liburua izan zuten hizketa-gai taldean. Hurrengo hitzordua Andu Lertxundiren *Zoaz infernura laztana* liburuaren inguruan hitz egiteko jarri dute. Martxoaren 13an iza-

Taldearen irakurketa plana

Martxoaren 13an, Zoaz infernura, laztana, Andu Lertxundi. Maiatzaren 8an, Ezinezko mailetak, Juanjo Olasagarre. Garagarriaren 26an, erabakigabe (Durangoko azokako berriren bat).

nen da, osteguna, 19:00etatik 20:30era, Victoriano Huizi udal liburutegian. Han bertan eman daiteke izena.

Non erabili

JAVIER AUTOESKOLA

IRURTZUN

% 10eko deskontua matrikulan.

PATXI GALARZA

IRURTZUN

% 5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.

JM AGIRRE HARATEGIA

LAKUNTZA

50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

DANTZALEKU

TABERNA

ALTSASU

Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

KAXETA

ETXARRI ARANATZ

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

KATE INFORMATIKA

IRURTZUN

% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

BAIZA MOTOR

ETXARRI

Eskaintza bereziak.

KALUXA TABERNA

URDIAIN

Menu edo plater konbinatuarekin kafea edo txupittoa doan, menu bereziarekin kafea edo kopa doan.

CITROËN SAN MIGUEL

ALTSASU

Total olioetan % 30eko deskontua. Pneumatikoen aldatketan % 20 deskontua.

IRUBIDE JATETXEA

ALTSASU

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

SAKANA OPTIKA

ALTSASU

% 15eko deskontua betaurrekoen armazioan eta kristaletan, % 10ekoa gainontze-koetan.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 45%	euria: 78%	euria: 25%	euria: 85%	euria: 90%	euria: 96%	euria: 83%
Min: 4 Max: 10	Min: 7 Max: 9	Min: 2 Max: 8	Min: 5 Max: 6	Min: 3 Max: 5	Min: 3 Max: 8	Min: 4 Max: 10

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	11.4	-2.1	46.9
Altsasu	8	-1	48.3
Aralar	2.9	-4.2	21.5
Urbasa	5	-5	38.4

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
14	22	1	8

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Otsaileko bazkide zozketa

OTSAILEKO SARIAK:

1. EKAINBERRI KOBAZULOTARAKO 2 SARRERA, GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

2. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

TAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

3. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

4. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

>> 11 galdera

Kontxi Amezketak

Fibromialgia gaixoa

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



Elkarrizketa osorik: www.guaixe.net-en.

1. Isilpean gordetzen den gaixotasuna da. Zergatik?

Fibromialgia duenarendako ez da erraza izaten azaltzea zer nolakoa den gaixotasunak eragiten duen mina. Askok ez dute ulertzen gertatzen zaiguna eta uste dute gainera kexuka aritzen garela. Muskuluetako mina eta nekea izaten dugu, askotan, ohean sartuta baino pasatzen ez dena.

2. Norbanako bakoitzak modu ezberdinean pairatzen du, gainera.

Bai. Fibromialgiak gorputzeko 18 puntutan eragiten ahal du. Hori-tako batzuk izaten ditu norbanako bakoitzak kaltetuta, ez dute zertan guztiak izan behar. Horren arabera, batzuek eta besteek era desberdinean pairatzen dute gaixotasuna. Gaixotasun kronikoa eta jatorri ezezagunak da fibromialgia, erreumatologoen nagusiki antzematen dutena, eta ezaugarri psikiatrikoak dituena.

3. Ezaugarri psikiatrikoak ere baditu?

Gaixotasun ezezaguna da, tratamendu zaila duena eta detektatzeko zaila dena. Medikuek askoren aurretik pasa naiz ni eta zenbaitzuek diote norberaren bizitza pertsonalean izandako edo jasan-dako bizipen traumatikoen eraginez sortzen dela fibromialgia. Hau da, egoera zailak izanagatik edo pasadizo larriak izanagatik sortzen den eritasuna dela.

4. Diagnostikoak zure kasuan zein bide izan du?

Mediku asko, proba asko eta bidean ahalegin handia eginda lortu nuen nire diagnostikoa. Erreumatologoak ikusi ninduenean zehaz-

tu zidan: gorputzeko 18 puntu-etatik 16 nituen kaltetuta. Besoetan eta hanketan nuen minakeraman ninduen proba guztiak egitera.

5. Zein tratamendu segitu duzu?

Medikuek pilulak eman izan dizkidate. Baina ni ez nago prest nire bizitza osoan pilula mordoa hartzeko. Horregatik jo nuen bestelako irtenbideen bila, nire medikuaren baimenarekin.

6. Zerk laguntzen zaitu?

Erlaxazioak eta nire burua kontrolatzeak. Izan ere, meditazioak eta norberaren burua kontrolatzeak asko laguntzen du. Burmuina erlaxatua mantenduz gorputza ere bare egoten da eta hori lortzen dudalarik minik ez dut izaten. Horrez gain, senda-belarrek duten ahalmenaz ere ohartu naiz. Harriak ere lagungarriak dira. Nik amatistarekin ura irakiten dut eta harriaren ezaugarria hartzen dut edaten dudana ur horrekin. Min handia izaten dudanean, marihuanaz egiten dudana olioak libratzen nau oinazetik.

7. Ariketa fisiko espezifikoak egiteak ere laguntzen du?

Garrantzitsua da min egiten dituzten zonaldeak indartu eta mugiaraztea. Horretarako ariketa fisiko espezifikoak egitea oso gomendagarria da, luzamenduak batez ere. Ikastaroetan erakusten dizute zer egin hobeki sentitzeko eta minik ez izateko. Gero norberak etxean egin ditzakeen ariketak dira.

8. Irurtzunen sortu zen talderen bat. Baina orain ez da aurrera atera.

Ikastaro horiek oso espezifikoak

izaten dira (Mank-eko Kirol Zerbitzura hots egin, 948 464 866) eta fibromialgia dugunok ez gara horrenbeste. Ariketa fisiko espezifikoak eskaintzeaz gain, meditazioa eta norberaren burua kontrolatzea lantzen da bertan, eta hori edozeini etor lekioko ongi. Hortaz, ikastaroa beste modu batera formulatu beharko litzatekeela uste dut, jende gehiago apuntatzeko.

9. Ez zara Nafarroako Fibromialgia Elkarte kide. Zergatik?

Garai batean jo nuen elkartera. Informazioa eskuratu eta gainerako gaixoeekin hitz egiten nuen. Baina berehala ohartu nintzen horrek ez ninduela laguntzarik ematen. Ni betidanik aritu naiz arazoari irtenbidea emateko saiakeran.

10. Irtenbidea bilatzeko, nork eman dizu laguntza?

Kristaloterapia saio batzuetan izana naiz. Noemi Rosaseskaintzen ditu, Iruñean. Kristalaren bitartez oinazea kentzeko terapia da. Baina ez hori bakarrik, Rosasendako ezinbestekoa baita meditazioa lantzea ere. Horrek barneko emozioak kontrolatzeko ahalmena ematen du, eta gaixotasunak ezaugarri psikiatrikoak izanda, asko laguntzen du norberaren mina uxatzen.

11. Gaixotasun isila da. Zer egin daiteke oro har, irtenbide gisa?

Medizina alternatiboa gehiago landu behar dela iruditzen zait, batez ere kronikoak diren eritasunekin, eta norberaren burua kontrolpean edukitzea ikastea. Ohiko botikak bizitza osoan hartzeak baretzen ahal du mina, baina gorputzeko beste atalei eragin diezaieke.

IRRATI-KUÑAK IRAGARKIAK BANNERRAK KARTELAK ESKUORRIAK

2014 MATRIKULAZIO KANPAINA

ar@guaixe.net 948 564 275 guaixekomunikazioa.blogspot.com

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

diseinua & inprimatzea